



Zinema, Mundua eta Giza Eskubideak

IPES Fundazioaren proiektua

www.cineddhh.org



ARGAZKIA: Tommy Trenchard/Panos Pictures

Unitate didaktikoa (euskaraz)

Migrazio behartuak eta babesa, begiradak generotik



Zinema, Mundua eta Giza Eskubideak

Giza Eskubideen ikuspuntutik eta zinemaren bidez ulertzea mundua. 20. unitate didaktikoa.
"Migrazio behartuak eta babesa, begiradak generotik".

Egileak:

Rut Iturbide, IPES Fundaziokoa

Ebru Done, Beatriz Ortega eta Idoia Oneca, CEAR Navarra batzordekoak (Iheslariak Laguntzeko Espainiako Batzordea)

IPES FUNDAZIOA – 2019ko abendua

Descalzos k., 72, behealdea - 31001, Iruñea (Nafarroa)

948 22 59 91 – fundacion@fundacionipes.org

www.fundacionesipes.org

www.cineddhh.org

"Antzitatespen - Ez komertzial - Obra eratorririk gabeko 3.0 Espainia (by-nc-nd)" lizentziapean dago lan hau.

Lizentziaren kopia bat ikusteko, jo webgune honetara:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Testuak, argazkiak, grafikoak, irudiak eta izenak, logotipoak, merkataritzako markak eta zerbitzuko markak komunikabide eta webgune desberdinen jabetzakoak dira, kasu bakoitzean zehazten den moduan.

Aurreko azaleko argazkia: Tommy Trenchard. **Aurreko azalaren diseinua:** Iratxe Esparza (PUNTO Y SEGUIDO)

Euskarazko unitate didaktikoa - © 2019 Fundación IPES

AURKIBIDEA

I. Unitate didaktikoaren aurkezpena	2
I.1. Zergatik egin ezaugarri hauek dituen unitate didaktiko bat?	2
I.2. Unitate didaktiko hau kokatzen den esparru normatiboa eta heziketa-mailak	4
I.3. Unitate didaktiko honen hartzailleak eta egitura	5
II. Helburuak	6
II.1. Helburu orokorra	6
II.2. Berariazko helburuak	6
III. Ikuspegia eta metodologia	7
III.1. Ikuspegia	7
III.2. Metodologia	8
IV. Oinarrizko gaitasunak	9
V. Eduki kontzeptualak	9
V.1. Migrazio behartuak	9
V.2. Nazioarteko babesa eta asilo-eskubidea	10
VI. Ibilbideak migrazio behartuetan eta asiloetan	13
VI.1. Jatorrizko herrialdetik ihes egitea	13
VI.2. Bidaia	16
VI.3. Norakoa edo helmuga	18
VII. Jarduerak	22
VIII. Ebaluazioa	30
IX. Erreferentzia bibliografikoak	31
X. Eranskinak	32

I. UNITATE

DIDAKTIKOAREN

AURKEZPENA

I.1 ZERGATIK EGIN EZAUGARRI HAUEK DITUEN UNITATE DIDAKTIKO BAT?

Egun, Bigarren Mundu Gerraz geroztik dagoen desplazatuen exodo handiena dugu aurrez aurre. 2018ko ekainean, 70 milioi pertsona baino gehiago ziren beren bizitokitik nahitaez aterarazitakoak, nagusiki herrialde pobretuetan edo gatazka larriren bat dutenetan (Siria, Sudan, Myanmar, Kolonbia...). Pertsona horien %85 beren herrialdeetan hartu zituzten (barne-desplazatuak) edo auzo-herrialdeetan, haiek ere pobretuak.

Mugimendu horiek arrisku larriko eta babesgabetasuneko baldintzatan egiten dira, herrialde eta eskualde aberastuek, besteak beste, Ameriketako Estatu Batuek, Australiak eta Europar Batasunak (EB), dituzten kontrol-politiken eta mugak blindatzeko hartzen dituzten neurrien ondorioz. Unitate didaktiko honetan, Europar Batasunean gertatzen denean jarriko dugu arreta, Espainia Hegoaldeko Mugaren zati baita.

Mediterraneo itsasoa gurutzatuz EBra iristea planetako migrazio-ibilbide arriskutsuena bihurtu da. Izan ere, 2000. urteaz geroztik, 40.000 pertsonatik gora hil dira itsaso hori gurutzatzen saiatzen. Aylan haurraren argazki dramatikoak 2014an¹ gizartearen arreta erakarri zuen eta hainbat erantzuni eman zien bidea, besteak beste, Greziako eta Italiako iheslari-esparruetan zeuden 160.000 pertsonaren **banaketa proportzionala egiteko EBko estatu kideen konpromisoari** eta EBtik kanpoko esparruetan zeuden 22.504 pertsonaren banaketa, zehazki, Turkian, Libanon eta Jordanian. Guztira, 182.504 pertsona, eta haietatik 17.337 pertsona hartzea egokitu zitzaion Espainiari. Erantzun horiek, ordea, **ez dituzte gutxieneko helburuak lortu, eta ez dituzte ekarri pertsona migratzaileen eta iheslarien bizia eta segurtasuna erdian jarriko dituzten politikak**. Izan ere, EBko herrialdeek hartu behar zituzten 182.504 pertsona horietatik 64.746 baino ez dira hartu, hau da, %35. Espainiako estatuaren kasuan, 2.792 pertsona baino ez dira hartu; horrenbestez, hitzartuta zuenaren %16 besterik ez.

Europar Erkidegoko mugen esternalizazio-politika² esaten zaionak bere horretan jarraitu du eta indartu egin da, eta EBk bere mugen kudeaketa auzo-herrialdeetara lekualdatu du: Turkia, Libia eta Maroko. Hori dela-eta, herrialde seguru batera iristen saiatzeko erabiltzen dituzten ibilbideak aldatzen joan dira iheslariak. Ibilbide horiek gero eta arrisku handiagoa dakarte, eta, gainera, babesa behar duten pertsona asko harrapatuta gelditzen dira jatorrizko herrialdean eta bidaian igarotzen dituztenetan, hala nola Marokon, Libian eta Turkian, eta herrialde horiek nahitaezko norako edo helmuga

¹ Intereseko albisteak:

https://elpais.com/internacional/2015/09/02/actualidad/1441216415_550941.html

<https://www.20minutos.es/noticia/2547335/0/aylan-kurdi-historia-vida/nino-siria/foto-ahogado/>

² Mugen esternalizazioa: Europako kanpoko mugen kudeaketa Hegoalderantz lekualdatzeko xedea duten politikak, hartara, iheslariak eta etorkinak Europara iristea saihesteko.



bihurtzen dira. Konprometitu eta behartu egiten duten nazioarteko akordioak sinatuta baditu ere, Europak ahaztu egiten du **pertsona guztiek dutela beren jatorrizko herrialdetik kanpo babesa bilatzeko eskubidea, eta babes horretaz gozatzekoa, beren bizitza arriskuan jartzen duen gatazka batetik ihes egin behar badute eta/edo arraza, erlijioa, iritzi politikoak edo gizarteko talde jakin batekoa izatea dela-eta esetsiak izateko beldur funtsatuak badituzte**. Hori horrela izanik, aginduzkoa da gogora ekartzea ez dela karitate-kontua, ez eta –soil-soilik– elkartasun-kontua, baizik eta **nagusiki eskubide-kontua da**, ezarrita dauden legezko mekanismoetara jota bete behar dena.

Gainera, gero eta kezkagarriagoa da **migratzaileak eta iheslariak salbatzen eta erreskatatzen aritzen diren ontziak kriminalizatu eta jazartzea**, eta bai pertsona horiei laguntza ematen dieten eta beren lanean planetako edozein tokitan murrizketak izaten dituzten erakundeak ere. Era berean da kezkagarria **arrazakeria, xenofobia eta immigrazioaren kontrako diskurtsoak edo arrazoibideak gorantz egiten joatea**. Gero eta ohikoagoak dira Europako alderdi politikoetan eta, oro har, gizartean, eta haietan, “immigrazio” hitza beste hauei lotzen zaie: segurtasun-eza, delitua, gatazka, inbasioa, indarkeria... Horiek guztiak aurreiritzi eta estereotipoetan oinarrituta daude, eta **arriskuan jartzen dute gizarte-kohesioa eta Europako proiektuaren identitate demokratikoa mehatxatzen dute**.

Egoera politikoa eta mediatikoa hori izanik, urgentziazkoa da gobernuei eta erakundeei eskatzea **erantzun politiko egokia** egoteko, nahitaez ekarri behar duena **migrazio- eta asilo-politika komuna** zehaztea. Hartara, politika horrek: a) migratzaileen eta iheslarien bizia eta segurtasuna lehenetsiko du, eta iheslariak beren bizia arriskuan jarri behar ez izatea eta nazioarteko babesa eskuratu ahal izatea bermatuko duten legezko bideak eta bide seguruak jarriko ditu abian; eta gainera, Europa osorako lehorreratzeko eta berriro kokatzeko mekanismo segurua eta aurretik ikus daitekeena sortuko du; b) hartuta dauden nazioarteko konpromisoekiko errespetuzkoa izango da; eta c) laguntza humanitarioak dituen oztupoak ezabatuko ditu.

Erantzun politiko beharrezko horri era berean **giltzarria den erantzun soziala** gehitu behar zaio. Herritarrek duten eginkizuna funtsezkoa da politika hauek eskatzean: a) giza eskubideetan eta kulturarteko bizikidetzan jarriko dutenak arreta; eta b) migratzaileen eta iheslarien gaineko aurreiritziak eta estereotipoak ezabatuko dituztenak. Alde horretatik, biztanleria-mugimenduen tratamendu politikoak, eta bai mediatikoak ere, erraztu egiten du oztopo fisikoak (harresiak edo migrazio- eta babes-politikak edo akordioak ez betetzeak...) onartzea eta gizartean normalizatzea; eta bai migratzaileen irudi orokortu eta estereotipatu bat eraikitzea ere pertsona desberdin, arrotz, eta bai aurkako ere, etsai, arriskutsu eta abar bezala. Irudi estereotipatu hori desagerrarazteko **gune nagusi eta erabakigarri bat dago: eskola**, gure gizarteetan giltzarria den sozializazio-agentea. Hain zuzen, hauek ezagutzera eman eta jarrera kritikoarekin beren gaineko gogoeta eragin dezake: nor diren iheslariak; zein diren herrialde batetik ihes egitera bultzatzen dituzten arrazoiak; egin behar duten bidaia, beste herrialde batzuetan nazioarteko babes hori, beren bizia arriskuan jarri gabe, eskatzea ahalbidetzen dieten bide seguruak eta legezkoak ez egotean; eta norakora edo helmugara iristen direnean pertsona horiek bizi dituzten gizarteratze-prozesuak.

Ezin dugu ahaztu edonori gerta dakiokela bere jaiotze-herrialdetik ihesi egin behar izatea eta beste toki ezezagun eta arrotz batean bizi berri bat hasi behar izatea. Horregatik uste dugu hain garrantzitsua dela, batetik, **fenomeno hau ulertzea erraztea**, eta, bestetik, **migratzaileen eta iheslarien giza eskubideekin konprometituta dauden ikasleak egotea sustatzea**. Izan ere, errealitatea aldarazteko lehen pausoa errealitate hori ulertzea eta kontzientzia hartzea da, gero ekintza eraldatzaileak bultzatzeko.

I.2 UNITATE DIDAKTIKO HAU KOKATZEN DEN ESPARRU NORMATIBOA ETA HEZIKETA-MAILAK

Unitate didaktiko hau DBHko bigarren zikloko (4. maila), Batxilergoko eta Lanbide Heziketako graduetako ikasleekin erabiltzeko diseinatu da.

Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculuma ezartzen duen apirilaren 22ko 24/2015 Foru Dekretuan, 4. artikuluan, etaparen helburuak zehazten dira, eta zehazki a) atalean adierazten da irakaskuntzak etapa horretan egin behar duen ekarpena eskubideak eta betebeharrak ezagutzeko, gainerako pertsonak errespetatzeko eta tolerantzia praktikatzeko.

“[...] Beren betebeharrak arduraz bereganatzea, besteekiko errespetua gordez beren eskubideak ezagutu eta gauzatzea; pertsonen eta taldeen artean tolerantzia, lankidetzeta eta elkartasuna praktikatzea; elkarrizketa gauzatzea giza eskubideak eta emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera berdintasuna sendotuz, horiek guztiak gizarte plural batean amankomunak diren balioak direlako; eta herritartasun demokratikoa gauzatzeko prestatzea”.

Halaber, 7. artikuluan, zeharkako elementuak aipatzen dira, eta hitzez hitz bosgarren puntuan hau ageri da:

“[...] ikastetxeek ekintzak burutuko dituzte ezein izaera edo egoera pertsonal edo sozial dela-eta diskriminazio-ezak eta tratua berdintasunak berezko dituzten balioak sustatzeko helburuarekin eta horretarako, beste neurri batzuen artean, edozein diskriminazio mota suposatzen duten portaera eta eduki sexistak eta estereotipoak ekidinen dituzte”.

Era berean, Nafarroako Foru Komunitatean Batxilergoko irakaskuntzen curriculuma ezartzen duen apirilaren 22ko 25/2015 Foru Dekretuan, 3. artikuluan, etaparen helburuak biltzen dira, eta, zehazki, a) atalean, aipatzen da Batxilergoak ikasleengan gaitasunak garatzen lagunduko duela, ondokoak egin ahal ditzaten:

“Herritartasun demokratikoa gauzatzea ikusmolde global batetik abiatuta, eta Espainiako Konstituzioko balioek eta giza eskubideek iradokitako kontzientzia zibiko arduratsua eskuratzea, gizarte justu eta ekitatiboa egiterakoan erantzukidetasuna sustatuko duena”.

Eta lege horren 6. artikuluan, zeharkako elementuak adierazten direnean, 4. atalean, berdintasunezko balioak sustatzeko premia jasotzen da, edozein diskriminazio-mota suposatzen duten portaera eta eduki sexistak eta estereotipoak ekidinda.

Azkenik, eta nahiz eta Lanbide Heziketako zikloetako irakaskuntzetan ez dagoen berariaz jasota, unitate didaktiko honetan lantzen diren helburu orokorretan, edukietan eta prozeduretan gaitasun hauek garatzea bultzatu nahi da: gaitasun soziala eta zibikoa, hizkuntza-gaitasuna eta ikasten ikastea. Eta, hortaz, irakaskuntzaren maila horretan ezin hobeto sartu eta egokitzen dela baloratzen dugu.

I.3. UNITATE DIDAKTIKO HONEN HARTZAILEAK ETA EGITURA

Unitate didaktiko honen hartzaileak irakasleak dira, eta asmoa da tresna malgua izatea, ikasleen ezaugarrietan oinarrituta, giza eskubideen ikuspuntutik eta genero-ikuspegitik, migratzaileek eta iheslariek gure ingurunean egun duten errealitateari heltzeko.

Unitate didaktikoa zortzi ataletan egituratuta dago. Lehenbizikoan, unitatearen premia justifikatzen da, egungo politika- eta gizarte-testuingurua aintzat hartuta. Gero, helburuak eta metodologia biltzen dira, eta bai oinarritzko gaitasunak ere. Ondoren, eduki teorikoei heltzen zaie, esparru kontzeptual eta legegintzako baten bidez. Jarraian, saioen planteamendua dago, ikasleekin gauzatu beharreko material eta jarduera zehatzekin. Material eta dinamika horiek egokitu egin daitezke, bai hartzaile zehatzak aintzat hartuta, bai eta haien kopurua eta, jakina, beharrak ere kontuan hartuta.

Horri guztiari gehitu behar zaio gidaliburu hau une eta toki jakin batean egin dela, oso aintzat izanda **egoerak, kopuruak, lekukotasunak eta informazioak egunetik egunera aldatzen direla.** Informazio-material erabilgarria eta ikasgelan denbora igarotzeko behar askotariko eta aldakorretara egokitzea izan dadila saiaturik, **bibliografia eta baliabide interaktiboak ere badaude, informazioa eguneratzeko aukera izateko.** Material honek CEAR batzordearen eta beste erakunde batzuen proposamenak ditu, eta elementu dinamikoa izan nahi du, bizitza aktiboa izanez zuen eskuetan.

II. HELBURUAK

II.1. HELBURU OROKORRA

Giza eskubideen ikuspuntutik eta genero-ikuspegitik sentsibilizatzearen bidez, **migrazioaren eta babesaren fenomenoaren aurrean jarrera kritikoa sustatzea** da helburu orokorra. Horretarako, helduko zaio, batetik migrazio-politikek migratzaileen eta iheslarien bizitzetan duten eraginari beren migrazio-prozesu osoan –ibilbide orokorrak gizon eta emakumeentzat, eta berariazko ibilbideak azken horientzat³ –; eta bestetik, gizarteratze- eta bizikidetza-prozesuetan aktore sozial desberdinek, gobernuek, erakundeek, herritarrek eta abarrek duten eginkizunari.

II.2. BERARIAZKO HELBURUAK

- **Nazioarteko babesa eta asiloa eskubide moduan ezagutzea**, eta haiek arautzen dituen esparru kontzeptual eta juridikora hurbiltzea, eta bai emakumeengan eta gizonengan duen aplikazioa ere. Hartara, aitortu ahal da pertsona guztiek migratzeko eta nazioarteko babesa eskatzeko duten eskubidea.
- **Babes bila beren herrialdeetatik edo lurraldeetatik ihes egitera behartzen dituzten kausa ugariak eta askotarikoak ulertzea**; hasten dituzten bidaiak eta egin behar dituzten ibilbideak, kasu gehienetan arrisku handiak hartuz beren gain, migrazio- eta babes-fenomenoa erregulatzeko garatzen diren migrazio-politiken ondorioz. Ibilbide horietan guztietan, berariaz, **aintzat hartuko dira generoko analisi batean gakoak diren alderdiak**.
- **Justizia sozialarekiko konpromisoa hartzen duen herritartasun baten sortze kolektiboa** laguntzea, **kulturarteko gizarteetan** bizitzeko gai dena, dibertsitateak errespetatzen dituen eta gizarte horiek eratzen dituzten pertsona guztien eskubideen eta berdintasunaren alde egiten duena.

³ Ibilbide orokorren eta berariazko ibilbideen kontzeptuak, gero esparru teorikoan azalduko den moduan, erreferentzia egiten die gizonen eta emakumeen bizipen komun eta partekatuei, kasu honetan, migrazio behartuaren fenomenoaren aurrean, baina baita emakumeek bakarrik, emakume izate hutsagatik, bizi dituzten berariazko ibilbideei ere, emakumeek pairatzen dituzten jazarpenei eta indarkeriei, besteak beste. Zentzu horretan, gainera, emakumeek bizirik irauteko erabiltzen dituzten estrategiei ere heltzen zaie.

III. IKUSPEGIA ETA METODOLOGIA

III.1. IKUSPEGIA

Migratzaileen eta iheslarien errealitatea aztertzeko esparru batean planteatzen da **unitate didaktiko hau**, gogoan izango dituen ikuspegi hauek:

- a) **Giza eskubideen ikuspegia:** pertsona guztiek berezkoak dituzten eskubideak (bizia, askatasuna, berdintasuna...) errespetatzea, babestea eta bermatzea erdian kokatzen duena, *alde batera utzita arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo beste era batekoa, jatorri nazional edo soziala, egoera ekonomikoa, jaiotza edo beste edozein baldintza*⁴.
- b) **Generoko ikuspegia:** gizonen eta emakumeen artean dauden espezifikotasunak eta berdintasunik ezak (biztanleria-mugimenduen feminizazioa, emakumeen aurkako indarkeria) aintzat hartzen dituen, eta bai migrazio-prozesu osoan sozialki eta kulturalki egozten zaizkien eginkizun desberdinak: bai ihes egitera behartzen dituzten arrazoietan, bai bidaian eta norako edo helmuga diren herrialdeetan ere. Baina, gainera, erresistentziako eta bizirik irauteko estrategiak garatzen dituzten agente aktibo moduan emakumeen izaera.
- c) **Kulturarteko ikuspegia:** errespetatu ez ezik, kultura-dibertsitatearen balioa nabarmendu ere egiten duena. Egun, irekitasunaren aldekoena den jarrera dakar kultura-interakzioan eta bizikidetzan, kulturen arteko horizontaltasuna sustatzen baitu, haien arteko bizikidetzan jarritz arreta, eta bai desberdinak diren sinesmenak baloratu eta onartzea ere.
- d) **Parte-hartze ikuspegia eta eraldatzailea:** informazio bati heltzearen eta haren gaineko gogoeta/eztabaida egitearen bidez jarrera kritikoa pizten saiatzen dena, gizarte eraldatzeko estrategia eta ekintza berriak planteatzea eta zalantzan jartzea ahalbidetuko duten espazioak sorrarazteko.
- e) **Zeharkako ikuspegia:** begirada holistikoa eta integrala izateko aukera ematen duena, migrazio behartuak kokatzen diren esparru soziala, politikoa, ekonomikoa, kulturala, morala eta filosofikoa kontuan hartzen duena, eta bai inplikaturik dauden faktore desberdinak nola aritzen diren eragin-trukean eta nola eragiten duten.
- f) **Ikuspegi intersektionala:** bizitza transbertsalizatzen duten (adina, jatorria, gizarte-maila, dibertsitate funtzionala...) gizarte-hierarkizazioko aldagai gako desberdinen intersektzioak pertsona batengan edo talde batean duen inpaktuaren analisia dakarrena, baita migrazio-prozesu osoan ere, eta elkar ikusteko, ulertzeko eta munduan bizitzeko dugun modua baldintzatzen dutenak.

⁴ Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 2. artikulua.

III.2. METODOLOGIA

Erabiliko den metodologia, batez ere, ***pentsamenduan oinarritako ikaskuntzarena*** izango da (*“thinking-based learning”*). Metodologia horren pean, parte hartzen duten ikasleak testuinguruan kokatzean, aztertzean, erlazioan jartzean eta argudiatzean hezi nahi dira; azken batean, informazioa ezagutza esanguratsu bihurtzean. Hartara, proposatzen diren dinamikek bultzatzen dituzte ikasle horiek gogoeta-espazioetan parte hartzera. Espazio horietan, emandako informazioa abiapuntu bat da, gaiaren sarrera egiten duena eta jarrera kritikoa pizteko asmoa duena, proposatutako jardueren bidez egin eta eztabaidatzeko. Hala, migrazio- eta babes-fenomenoaren gaineko ezagutza aplikatua eta kontzientzia kritikoa sortzeko bidea emango da. Gainera, emandako informazioari heltzean ikasleen *parte-hartzea* eskatzen duen proposamena da.

Beste alde batetik, lehen saioan, ***esperientzian oinarritutako ikaskuntza*** batetik abiatzea proposatzen da, autoesploraziotik eta esperimentaziotik ikaskuntza esanguratsuak eraikitzeko espazioak sortuz, ikasleei zuzenean interpelaturik haiengana jotzean eta migrazioekin eta asiloarekin duten harreman zuzenera.

Horrez gain, behar, interes, ahalmen eta estrategia partekatuak edo komunak bilatzea eta gizartea eraldatzeko proposamenetan ikasle horiek inplikatzeko bultzatuko da, migrazio behartuei eta babesa eskatzeko beharrari buruzko salaketa- eta sentsibilizazio-ekintzen bidez. Horren adibide moduan, azken saioan, ***proiektuetan oinarritutako ikaskuntza*** aplikatzea proposatzen da, proiektu labur bat garatuta, sentsibilizazio-kanpaina bat proposatzearen bidez, teknologiak erabilita. Metodologia-mota honek –unitate didaktikoan jorratutako errealitatea du abiaburu– ahalbidetzen die ikasleei: alde batetik, eskuratutako ezagutzak aplikatzea eta gaitasunak garatzea, hala nola pentsamendu kritikoa, komunikazioa, elkarlana eta arazoei irtenbidea aurkitzea; eta bestetik, gizartea eraldatzeko estrategia eta ekintza berriak planteatzea.

Horrez guztiaz gain, genero-ikuspegia presente egongo den metodologia bat gauzatuko da, batez ere ikasgelako jarduera desberdinak egiteko ***lantaldeak egituratzeari*** dagokionez. Izan ere, irakasleek taldeak egin behar dituztenean, talde horiek bi ezaugarri izango dituzte: lehenbizikoa, ***talde horiek eratuko dituzten kideak, gehienez ere, bost izango dira*** (dena den, ikasgelan dagoen ikasle-kopuruaren eta jarduerarako behar diren taldeen arabera izango da kopurua beti); eta bigarrena, ***talde horiek sexuaren arabera ere banatzea***. Hartara, soil-soilik neskenak diren taldeak egongo dira, soil-soilik mutilenak eta bai talde mistoak ere. Sexuan oinarritutako banaketa triangeluar hau proposatzen da, Mercedes Bengoechea (2005) esaten duen moduan, neskek eta mutilek komunikazio-eredu desberdinak dituztelako, eta, eskuarki, mutilena nagusitzen delako. Arrazoi horrengatik garrantzitsua da espazio txikiak eta erosoak sortzea neskentzat, gainerakoan, gizartean naturalizatutako joera baita mutilen diskurtso hegemonikoaren erreproduktzio hori berriro gailentzea talde mistoetan, nesken iritziak isilarazita. Horrenbestez, helburua da neskei eta mutilei entzutea, eta bai talde mistoetan esaten dena ere, eta egiaztatzea ea azkenean diskurtsoren bat era orokortuan hartzen den edo ez. Behaketa hori, bere horretan, emaitza bat da.

IV. OINARRIZKO GAITASUNAK

- a) Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna: jarrera propositiboak eta elkarlanerako argudiaketa edo arrazoibidea garatzea.
- b) Gaitasun kritikoa: aztertze, adierazteko eta arrazoitzeko gaitasuna.
- c) Ikasten eta ikasitakoa ahazten ikasteko gaitasuna.
- d) Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.
- e) Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.
- f) Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.

V. EDUKI KONTZEPTUALAK

V.1. MIGRAZIO BEHARTUAK

Antzinatek ibili izan da gizakia etengabe bidaiatzen, askotariko arrazoiek bultzatuta, borondatezkoek (aukera berriak, ikasketak...) eta nahi gabekoek (gatazketatik ihes egitea, giza eskubideen abusutik, baliabiderik ez izatek klima-aldaketaren ondorioz edo ez...). Horrek berekin dakar, bai pertsonak toki batetik bestera mugiaraztea, zirkulazio aserako duten eskubidea gauzatuz, bai eta pertsona horiek lurraldean bertan egoteko duten eskubidea ere, duintasun- eta askatasun-baldintzetan.

Egun gutxi gorabehera dauden 260 milioi migratzaileetatik: 70 milioi behartuta lekualdatu behar izan dute, eta haien barne daude 40 milioi barne-desplazatu baino gehiago, asiloa eskatu duten 3 milioi pertsona eta 25,4 milioi iheslari.

Barne-desplazatuak dira beren etxetik edo ohiko bizilekua zuten tokitik ihes egitera behartuta egon diren eta nazioartean aitortuta dagoen estatu-muga bat gurutzatu ez duten pertsonak edo pertsona-taldeak. Gatazka armatu baten, indarkeria orokortuko egoeren, giza eskubideen urraketen, edo naturako hondamendien edo gizakiok eragindakoen ondorioz edo haien eraginak saihesteko egin dute ihes hori (*Barne-desplazamenduen printzipio gidariak, Nazio Batuak, E/CN.4/1992/23 dokumentua*).

Ukitutako pertsona eta talde horiek **beren jatorrizko herrialdean gelditzeak**, berekin ekartzen du –nahiz eta kasu askotan iheslarien kideko egoerak pairatu–, mugarik ez igarotzean, **ezin eskuratu izatea nazioarteko babesa**. Barne-gatazka armatuen hazkundeak, estatuak dituzten migrazio-politika gero eta murriztaileagoek eta herrialde seguru batera iristeko gero eta handiagoak diren zailtasunek ekarri dute asiloa eskatzeko eskubidea gauzatzen duten pertsonen kopurua murriztea eta **barne-desplazatuak kopuruak handitzea**.

V.2. NAZIOARTEKO BABESA ETA ASILO-ESKUBIDEA

Nazioarteko eta nazioko zuzenbideak araututa dago **asilo-eskubidea**, eta estatuen betebeharra da. 1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapenen 14. artikuluan jasota dago, funtsezko eskubide gisa, eta berariaz hau biltzen da: *“Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du edozein herrialdetan babesa bilatu eta izateko eskubidea”*. Asilo-eskubidea **nazioarteko babesa ematean** datza, estatu batek pertsona bati emana: *“arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, iritzi politikoengatik, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik, generoarengatik edo sexu-orientazioarengatik, bere nazionalitateko herrialdetik kanpo dagoenari eta bere herrialde horretako babesa lortu ezin duenari edo beldur horiengatik lortu nahi ez duenari”*.⁵



Baina ez zen **Genevako Konbentzioa**⁶ arte –1951n, gero garatua New Yorkeko Protokoloan 1967an– *iheslaria* nor den definitu, zeintzuk diren ihes egitera behartzen duten arrazoiak eta bai zein diren nazioarteko babes hori merezi dutenak ere. Konbentzio hori Bigarren Mundu Gerraren ondoren europar iheslariak babesteko xedearekin onartu zuten, eta jada 140 herrialdek baino gehiagok izenpetu dute.

⁵ <http://www.interior.gob.es/web/servicios-al-ciudadano/extranjeria/asilo-y-refugio/concepto>

⁶ <https://www.acnur.org/es-es/search?query=convenci%C3%B3n%20Ginebra%201951>

Nazioarteko araudian jasotzen den moduan, **iheslariak** dira beren herrialdetik ihes egitera behartuta egon direnak, arraza-, erlijio-, nazionalitate-, iritzi politiko eta/edo gizarte-talde jakin bateko izate-arrazoiengatik esetsi dituztelako; beren nazionalitate-herrialdetik kanpo daudenak eta herrialde horretako babes hartu ezin dutenak, edo beldur horiengatik, hartu nahi ez dutenak.

Asilo-legean, 3. artikuluan, **“generoaren edo sexu-orientazioaren” kasua** aitortzen da gainera, zeinetatik abiatuta, arrazoi horietako batengatik esetsia izan dela frogatu dezakeen pertsona batek iheslariaren edo errefuxiatuaren estatutua jasotzen duen Genevako Konbentzioa izenpetu duen estatu batean.

Genevako Konbentzioak, gainera, **ez-itzulketaren printzipioa** jasotzen du. Hartara, haren bidez, debekatu egiten zaie estatuei pertsona bat herrialde batera kanporatzea edo itzultzea, baldin eta herrialde horretan bere bizitza edo askatasuna mehatxupean badago, edo torturak, tratu ankerrak edo iraingarriak pairatzeko edo oinarritzko giza eskubideak larri urratzeko arriskua badu.



Espainiako estatuan, asilo-eskubidea Espainiako Konstituzioan aitortuta dago, 13.4 artikuluan: *“Legeak ezarriko ditu mugak beste herri batzuetako hiritarrek eta herrigabeek⁷ Espainian ihesleku eskubidea noraino gozatu ahal duten”*; eta eskubide hori bere Asilo Legearen bidez arautzen da.

Pertsona batek nazioarteko babes eskatzen duenean, besteak beste, Espainian, **administrazio-prozedura** bat hasten da, eta prozedura horren emaitza bi egoera hauek izan daitezke: lehena nazioarteko babes hori ukatzea, eta, ondorioz, harrera-herrialdean

⁷ <https://www.acnur.org/es-es/search?query=convención%20Ginebra%201951>

legez kontrako administrazio-egoeran gelditzea; eta bigarrena, nazioarteko babes ematea. Nazioarteko babes hori ematen bada, ***Iheslariaren Estatutua*** aitortu ahal da edo beste babes-modu batzuk, esate baterako, ***Aberrigabearen Estatutua***. Babes hori “aberrigabetzat” jotzen diren pertsonen ematen diete estatuak. Horrek esan nahi du nazionalitatearik gabeko pertsonak direla, estatu bakar batek ere ez baititu nazionalizatzen. Egoera hori pertsona batek inoiz nazionalitatearik izan ez duenean gerta daiteke (ez zitzaion nazionalitatearik eman jaio zenean) edo berea galdu baina besterik hartu ez duenean. Horren adibidea Saharako pertsonak izan daitezke, ez baitute nazionalitatearik, Mendebaldeko Sahara lurralde independentetzat jotzen ez den bitartean edo, gutxienez, autodeterminazio-erreferenduma egiten ez den bitartean.

Babes subsidiarioa ematea ere gerta daiteke, Iheslariaren Estatutua aitortzeko baldintzak bete gabe, jatorrizko herrialdera edo ohiko bizilekura itzuliko balira kalte larriak izango lituzketela uste izateko arrazoi funtsatuak dituzten pertsonen kasuan.

Alde horretatik, kontzeptu hauek kontsultatzeko edo sakontzeko intereseak izan daitezkeen lotura batzuk daude jarraian:

<http://diccionario.cear-euskadi.org/apatrida/>

<http://diccionario.cear-euskadi.org/estatuto-de-proteccion-subsidiaria/>

Arrazoi ekonomikoengatik eta/edo klimatikoengatik migratzaileak direnak badirudi kategoria “apalago” batean gelditzen direla diskurtso mediatikoan, alde batera uzte baitu, asiloaren gaian nazioartean dagoen arauditik harago, eskubideen titularrak ere badiela eta, bizitza hobe baten bilaketan, kasu askotan gosetik, muturreko pobreziatik eta etorkizuneko itxaropen-ezetik ihes egiten dutela. Arrazoi zilegiak dira Europako gizartearen zati handi batentzat ere, iraganean bertan izan ziren gerrek utzi zuten miseriaren zauriak irekita baititu oraindik. Horrez guztiaz gain, giltzarria da ***migrazioen feminizazioaren fenomenoari*** heltzea. Izan ere, alde batetik, egitate hori indartzen doa denborarekin, eta emakumeen parte-hartzea handitzen doa eta eraldatzen ari da; are gehiago, behartuta lekualdatzen diren emakumeak biztanleria migratzailearen eta iheslariaren erdiak dira. Eta beste alde batetik, agente aktiboak dira, berentzat, beren familia eta komunitateetarako etorkizun hobe bilatzen dutenak. Hori gorabehera, emakumeek migrazio-prozesuetan duten eginkizun aktiboaz gain, garrantzitsua da beste alderdi honi heltzea: aintzat hartuta egungo egiturazko egoera (generokoa, migratiokoa, ekonomiko kapitalista...), emakume migratzaile behartu edo iheslaria izateak kalteberatasun-maila handiagoa dakar berekin, bere egoera berean dagoen gizonarekin alderatuta.

VI. IBILBIDEAK MIGRAZIO BEHARTU ETA ASILOETAN

Asiloaren erakundeak eskaintzen duen nazioarteko babesaz gozatu ahal izateko lehen pausoa herrialde seguru batera iristea lortzea da. Iheslariak eta migratzaileak egin behar izaten dituzten ibilbideei dagokien atal honetan, **ibilbide** horien bateko **hiru une gakorekin** lotuta lan egingo da: **jatorriko herrialdeetik ihes egitea, bidaia bera eta norakoa edo helmuga**. Bi analisi-mailatan egingo da: lehen maila **ibilbide orokorre** dagokiena da, gizonak eta emakumeak hartzen dituztenak, eta bigarrena **berariazko ibilbide** dagokiena, eskusiboki, **emakume** bizi dituztenak.

VI.1. JATORRIZKO HERRIALDETIK IHES EGITEA

A) IHES EGITEKO KAUSA OROKORRAK

1951ko Genevako Konbentzioak bost jazarpen-kausa edo -zergati jasotzen ditu, nazioarteko babesa eskatu ahal izateko arrazoi moduan aitortzen direnak. Jarraian, kausa bakoitzarekin lotutako adibide batzuk zehazten dira⁸:

- **Arraza/etnia**: larruazalaren kolorea edo etnia batekoa izatea (rohingyak Myanmarren edo albinoak Malawiko Errepublikan).
- **Erlizjioa**: sinesmen teistak, ez teistak edo ateoak; kultu formaletan parte hartzea, pribatuan edo jendaurrean, bakarka edo komunitatean (juduak Bigarren Mundu Gerran).
- **Nazionalitatea**: kultura-, etnia- edo hizkuntza-identitatea; jatorri geografiko edo politiko komunak edo beste estatu bateko biztanleriarekiko erlazioa (Palestina).
- **Iritzi politikoak**: jazarpena eragin dezaketen agenteekin eta beren politikekin edo metodoekin lotutako afera bati buruzko iritziak, ideiak edo sinesmenak (aurkari politikoak Venezuelan).
- **Talde jakin batekoa izatea**: sortzetiko ezaugarri bat partekatzen dute kideak, aurrekari komunak edo sinesmen bat, hain funtsezkoa, ezen uko egin ezinezkoa baitzaie, edo identitate desberdin batekin, gizarterako edo jazarpen duen agentearentzat desberdin gisa hautematen duena (emakumeen genitalen mutilazioa egiten zaien emakumeak).

Nazioarteko babesaren ikuspuntutik, **jazarpena giza eskubideen urraketa larri**, iraunkor edo sistematiko **moduan definitu ahal da**. **Diskriminazioa** edo tratu txarragoa ere jazarpen moduan **aitortu ahal dira**, nazioarteko babesa eskatuz.

⁸ Ihes egiteko arrazoiekin lotutako istorio gehiago ikusteko, hona joan daiteke:
<https://www.cear.es/section/historias-de-refugio/>

B) GENERO-ARRAZOIENGATIK IHES EGITEKO KAUSAK⁹

Generoko arrazoiengatik jazarpenera eskubideen urraketa horiek pertsona bati bere genero-identitatea (genero femeninoa, genero maskulinoa, trans edo beste batzuk) dela-medio edo bere lehentasun sexualak direla-medio esleitzen zaion rolaekin harremana duenean gertatzen dena da. Lehenago esan den moduan, diskriminazioa edo tratu txarragoa ematea jazarpeneraren baliokide izan daiteke eta gerta daiteke nazioarteko babesa behar izatea.

Lege eta ohitura patriarkalen bidez milaka emakumeren eta gizon batzuen giza eskubideak urratzen dira mundu osoan. Egiturazko ikuspegi batetik, **genero-arrazoiengatik jazarpenera hauen bidez jar daiteke agerian**: a) diskriminazioa eragiten duten legeak eta gizarte-, erlijio- edo kultura-arauak inposatzea; eta b) lege eta arau horiek hausteagatik neurrigabeak diren zigorrak ezartzea. Ingurune pribatuan eta publikoan gertatzen dira, eta estatukoak diren eta ez diren agenteek gauzatzen dituzte.

Ordena patriarkalak inposatutako **arau sozialak eta genero-rolak betetzen ez dituzten emakumeek diskriminazioa eta jazarpenera pairatzen dute beren sexualitatearen, ugalketa-gaitasunaren eta beren gorputzaren kontrolaren bidez**. Denek, nagusiki, beren jatorriko herrialdean pairatzen dute, baina ez han bakarrik. Haren adibideak hauek dira. Alde batetik, sozialki naturalizatutako indarkeria guztiak: psikologikoa, zainketa-gaitasunen abusua, soziala (senitartekoen eta lagunen sarea murriztu eta haustea), sexuala (bortxaketaren kultura), ekonomikoa (lan ordaindua egitea debekatzea edo bere enpleguarekin irabazten duen dirua erabiltzen ez uztea), fisikoa eta abar. Baina, gainera, beste alde batetik, emakumeen ugalketari edo sexualitateari buruz ezarritako erregulazioarekin lotutako indarkeria guztiak: emakumeen genitalen mutilazioa, sexu-abusuak eta bortxaketa zentzagarriak, pertsonen salerosketa sexu-esplotaziorako, antzutze behartua, pertsonaren nahiaren kontra eragindako abortua, nahitaezko haurdunaldiak, alargunak erretzea, harrika hiltzea, ezkontza behartua, emakumeen aurkako indarkeria beren familiako gizonen aldetik eta/edo emakumeen aurkako indarkeria komunitarioa eta feminizidioa.

Alde horretatik, nahiz eta **ezin den alderatu emakumeekin, gizon heterosexualek ere pairatu ahal dute genero-arrazoiengatik jazarpenera**, “femeninoari” lotutako jokaerak izate hutsagatik edo beste kontu batzuegatik, gatazka armatuen logikekin lotutakoak askotan (derrigorrezko errekrutatzea adibidez), besteak beste.

Gainera, heteronormatibitatearen arabera ez den genero-identitatea edo sexu-afektibitate orientazioa duten pertsonak-LGTBIQ herritarrek (emakumeak, gizonak eta beste batzuk) –haien artean, jasotzen den moduan, emakumeak ere badaude– indarkeria- eta jazarpenera-modu desberdinak jasan behar izaten dituzte. Hauek dira ohikoenak: penalizazioa, barne hartuta heriotza-zigorra zenbait herrialdetan, torturak eta tratu umiliagarriak (batzuetan, estatuko agenteek berek gauzatuta), bortxaketa (zentragarria, lesbianen kasuan) eta sexu-abusuak, estigmatizazioa eta patologizazioa, itxialdia eta indarkeria familien beraian barnean eta indarkeria komunitatearen aldetik.

Jarraian, **indarkeria-modu horiekin lotutako kontzeptu giltzarri batzuk zehazten ditugu**:

- **Ohore-delituengatik jazartzea**¹⁰. Sarritan, ohore-delitu hauek, emakumeen kontrako indarkeria-modu desberdinak ekartzen dituztenak, haien bizitzak kontrolatzeko mekanismoak dira. Etengabeko zaintzaren pean bizi dira, eta, ez badira betetzen generoko aginduak, ohore sozialaren kodea urratu eta familiaren ospea gal daiteke. Horrek berekin dakar, gainera, batetik, etxean pribatutasunik ez

⁹ <http://diccionario.cear-euskadi.org/persecucion-por-motivos-de-genero/>

¹⁰ <http://hmv-awareness.com/forms-of-hmv/>

izatea eta familiaren saretik kanpo sozializatzeko aukera gutxi edukitzea, eta, bestetik, mugitzeko eta elkartzeko askatasuna murriztea. Hartara, emakumeak gizonen nahiekin konformatu behar izatera behartzen dituen egiturazko presio oso handia dago, eta gizon horiek familiaren hobe beharrez aritzeaz harro ibiltzen dira. Autonomo izateko nahiari eusten diotenak berekoitzat eta familia horretarako eta bere ohorerako kaltegarritzat jotzen dira, eta, ondorioz, zenbait eratako indarkeriaren bidez (bortxaketak, harrika hiltzea...) zigortzen dira. Gizarte horien barnean dagoen patriarkatuari autoritarioa edo behartzekoa esaten zaio; eta horren aurrean dago, ustez demokratikoak diren gizarteetan, borondate onekoa edo onarpenezkoa esaten zaiona.

- **Ezkontza behartua eta goiztiarra**¹¹. Ezkontza behartuan, eskuarki, alde bat (emakumeak) bere baimena izan gabe edo nahi izan gabe ezkontzen da. Eta goiztiarrak aipamena egiten dio adingabea den pertsona bat ezkonarazteari. Normalean, bi ezaugarri horiek batera gertatzen dira. Nazio Batuen Erakundeak ezkontza behartua giza eskubideen urraketatzat hartzen du, pertsonaren askatasun- eta autonomia-printzipioak hausten baititu eta neskatoak hezkuntzarik, osasunik eta epe luzerako bizi-aukerarik gabe uzten baititu. Hiru segundotik behin neskato bat ezkontzera behartzen da. Egun, 14,2 milioi neska behartzen dira urtean ezkontzera 18 urteak bete baino lehen. Bereziki ahulak edo kalteberak diren taldeetan, hala nola iheslarien edo emakume iheslarien taldeetan, ezkontza behartua emakumeen kontrako beste indarkeria bat da. Autonomia eduki ahal izatea eta beren bizitzaren gainean erabakitzea eragozten zaie, eta horri gehitutako ondorioak daude, hala nola prestakuntzarik ez izatea eta, horrek berekin ekarriko du, beharbada, mendekoa izatea diru aldetik etorkizunean, beste indarkeria batzuk bizi behar izatea (senarrak egindako bortxaketak), eta abar.
- **Emakumeen genitalen mutilazioa**¹². Emakumeen genitalen mutilazioak edo ablazioak 3 milioi neskato mehatxatzen ditu urtean, eta kalkulatu da 200 milioi emakumeri baino gehiagori egin diotela. Jardunbide honek emakumeen eta neskatoen giza eskubideak larriki urratzea dakar, eta muturreko bereizkeria-modua da. Emakumeen kanpoko organo genitalak erabat edo zati batean erauztea da ablazioa. Jardunbide honen ondorioak, fisikoak ez ezik –emakume asko hil egiten dira infekzioen eta elkartutako beste arazo batzuen ondorioz, eta denek izaten dituzte arazo larriak beren bizitzako gainerako urteetan–, psikosozialak ere izaten dira (plazer sexuala galtzea, trauma osteko sindromea...). Helburu nagusia emakumeen gorputza eta, batez ere, sexualitatea murriztu eta kontrolatzea da, eta genero-egituraren pean hezteak, hartara, tradizioek emazte eta emakume gisa agintzen dituzten betebeharrak gauzatzeko, gizonetikiko mendekotasuna agerian utzita (lanaren sexu-bereizketa¹³ eta genero-identitateak¹⁴). Mutilazioa egitea ekartzen duten arrazoi nagusiak erlijioak, kulturak eta sozialak izaten dira. Egiten den gizarteetan ez dute tratatu txartzat hartzen; osteraz, gizarte helduaren zati izateko ezinbesteko prestaketatzat baizik. Jardunbide honek balio soziala du, kulturala, batasuneko esanahi handikoa, talde-kohesiokoa eta emakumeen ikaskuntzakoa.

¹¹ <https://eacnur.org/blog/matrimonio-forzado-siglo-xxi/>

¹² <https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/female-genital-mutilation/>

¹³ Lanaren sexu-bereizketak erreferentzia egiten dio zereginak sexuen arabera banatzeari, bai zeregin ordainduak (enplegua) eta bai ordaindu gabeak ere (zainketak eta etxeko lanak).

¹⁴ Genero-identitateak erreferentzia egiten dio emakumeengan “beste batzuentzako izakiak izateko” eta gizonengan “beren buruarentzako izakiak izateko” aginduarekin lotuta egiten den eraikitze subjektiboari.

- **Feminizidioa.** Emakume izate hutsagatik emakumeen hilketei egiten die aipamena. Eskuarki, emakumeak hil aurretik, tortura fisikoak eta sexualak egiten zaizkie (bortxaketak). Feminizidioaren asmoa da jendaurrean eta gizartean mezu hau zabaltzea: gizonek mendean dituzte emakumeen gorputzak eta bizitza.
- **Sexu-esplotaziorako salerosketa.** Pertsonen salerosketa prebenitu, zigortu eta zehatzeko Nazio Batuek duten protokoloaren arabera, honela kontzeptualizatzen da salerosketa hori: *“pertsonak erakartzea, garraiatzea, lekuz aldatzea, hartzea edo jasotzea, mehatxatuz edo indarkeria edo derrigortzeko beste modu batzuk, bahiketa, iruzurra, engainua, botere-abusua edo kalteberatasun-egoera erabiliz, edo ordainketak edo onurak emanez edo jasoz beste pertsona bat mendean duen pertsona baten baimena lortzeko, esplotazioko helburuekin. Esplotazioak, gutxienez, prostituziotik eta sexu-esplotazioko beste modu batzuetatik, lan edo zerbitzu behartuetatik, esklabotzatik edo antzeko jardunetatik, zortasunetik eta organoen erauzketatik eratorritakoa biltzen du”*.

Salerosketaren kasuan, biktimek edo ez dute baimenik eman edo, hasieran eman bazuten ere, baimen horrek balioa galdu du, trafikatzailen bortxa, engainu edo abusuarengatik. Sexu-esplotaziorako salerosketa gorputzak merkaturatzeko egungo sistema patriarkalak eta kapitalistak eskaintzen digun adierazpen larriena da.

VI.2. BIDAIA

A) BIDAIA. KONTSIDERAZIO OROKORRAK

Asiloak eskaintzen duen babesaz gozatu ahal izateko lehen pausoa herrialde seguru batera heltzea da. Beren jatorrizko herrialdetik ihes egiteagatik iheslariak izaten dituzten zailtasunei hainbat **governuk iheslari horiek iristea erregulatu eta eragozteko jartzen dituzten oztopoak** gehitu behar zaizkie. Jatorrizko eta iragaitzazko herrialdeetan dauden iheslariak nazioarteko babesak eskuratzea erraztetik urrun, Europar Batasuna ahalegindu da pertsona horiek Europako mugetara iristea eragozten, muga horiek indartzea, kontrolatzea eta haiek esternalizatzea giza eskubideen eta asilo-eskubidearen gainetik jarrita (beste herrialde batzuen bidez, adibidez, Turkia, Libia eta Maroko).

Mugak itxi eta kontrolatzeko jardunbide horren ondorioz, European sartzeko bi aukera daude. Alde batetik, iragaitzazko herrialde edo helmuga-herrialde batera hegazkineko edo treneko bide erregularretatik iristen diren pertsonena. Halakoak dira, esate baterako, Latinoamerikatik iristen direnak, ez baitute bisarik behar. Eta bestetik, babesak lortzeko legezko biderik eta bide segururik ez izatean –beste herrialde batzuetako kontsuletxeetan eta enbaxadetan asiloa eskatzeko aukera, bisa humanitarioak...–, babes egokia ziurtatuko dien Europako herrialde batera iristeko ibilbide arriskutsuak hastera behartuta daudenak. Nagusiki, Afrikako eta Ekialde Ertaineko herrialdeetakoak dira, Mediterraneo zentraletik (Libia eta Italia) igaro behar dutenak edo Gibraltarko itsasartetik, Espainiako estatuaren kasuan.

Bidaia horretan, hainbat oztopo eta eragozpen daude:

- **Mugen esternalizazioa**¹⁵. Lehenago adierazi den moduan, fenomeno hau ezaugarritzen duena politiken multzo bat da, eta politika horien helburua da Europako kanpo-mugen kudeaketa hegoalderantz lekualdatzea, iheslariak eta immigranteak iristea saihesteko. Migrazio- eta asilo-politikak etengabe eta gero eta gehiago

¹⁵ <http://diccionario.cear-euskadi.org/externalizacion-de-fronteras/>

gogortzean datza, eta ondorio larriak ditu iheslari eta immigrante horien giza eskubideak gauzatu eta gozatzean, izenpetuta dauden nazioarteko hitzarmenak eta itunak ez betetzeaz gain. Azken urte hauetan, esternalizazio hori hauen bidez gauzatu da: a) kanpoko mugetan harresiak eta hesiak eraikitzea; eta b) Europak eta/edo estatu kideek beste herrialde batzuekin hitzarmenak izenpetzea, migrazioen kontrola emateko –Europar Batasunaren eta Turkiaren arteko akordioa, Italia eta Libiaren artekoa, eta Espainia eta Marokoren artekoa–. Hartara, mugen kudeaketa eta kontrola beste herrialde batzuetara lekualdatzen dute eta milaka pertsona harrapatuta uzten dituzte, egoera horietan pertsona horiek arrisku larrian baitaude, ez baitituzte beren giza eskubideak errespetatzen eta ez baitaie bermatzen nazioarteko babes egokia.

- Muga eta Kostaldeetako Guardiaren Europako Agentziak **mugak militarizatzea** eta muga horiek indartzea (FRONTEX¹⁶).
- **Europako mugak iragazgaitz** bihurtzea (harresiak eta hesiak eraikitzea, kontrol- eta zaintza-sistemak handitzea, asilo-eskaerari oztopoak jartzea...).
- **Bisa inposatzea**, lehen eragozpena baita iheslariarentzat. Adibidez, nabarmentzekoa da nola 2011n, Siriako gatazka hasi zenean, herrialde horretatik iristen ziren pertsona guztientzat iragaitzazko bisa bat ezarri zen. Horrek *de facto* mugatu egiten zuen herrialde hartzaileetan sartzea.
- **Diplomaziaren bidez** enbaxadetan eta kontsuletxeetan **asiloa eskatzeko aukera kentzea**.
- **Migrazioaren kontrola pribatizatzea**, bidaiarien dokumentazioa kontrolatzeko betebeharrak ezarrita garraio-enpresei eta isunak ezarrita betetzen ez badituzte.
- **Pertsonen salerosketa-sareak**, legezko biderik ez egotearen ondorio moduan. Horrek, gainera, pertsonen salerosketa hori ardatz duen legez kanpoko negozioa eragiten du. Hartara, bidaia jarraitzeko, migratzaile behartuek ordaindu egin behar dute, eta bidaia hasteko askatasuna eta bai geroko askatasuna ere baliabideak edukitzearen mende gelditzen da.
- **Itzulketa espresak**. Nazioarteko babesa behar duten pertsonen detektatze egokia eragozten duten itzulketa-prozedura azeleratuak dira. Horrek urratu egiten du Genevako Konbentzioko (1951) *ez-itzulketaren printzipioa*. Hain zuzen, printzipio horrek debekatu egiten die estatuei pertsona bat kanporatu edo itzultzea, baldin eta herrialde horretan beren bizitza edo askatasuna mehatxupean badago, edo torturak, tratu ankerrak pairatzeko edo oinarritzko giza eskubideak urratzeko arriskua badu.

Neurri politiko horien bidez, **gero eta arriskutsuagoak diren ibilbideak aukeratzera behartzen dira migratzaileak eta iheslariak**. Izan ere, egun, Mediterraneo itsasokoa, lehenago adierazi den moduan, munduko arriskutsuena da, eta, bertan, azken 20 urteetan, 40.000 pertsonatik gora hil dira.

Aurretik adierazi den guztia aintzat hartuta, esan daiteke, pertsonengan eta beren eskubideetan baino gehiago, mugen kontrolean eta segurtasunean gehiago oinarritzen den ikuspegi bat dugula. Hori dela-eta, giza eskubideen defentsaren alde lan egiten duten erakundeek bereziki nabarmentzen dute gobernuek legezko bideak eta bide seguruak eskaini behar dituztela, nazioarteko babesa eskuratzeko bizia arriskuan jarri behar izan gabe.

¹⁶ Frontex, Muga eta Kostaldeetako Guardiaren Europako Agentzia, 2004an sortu zuten, EBko estatu kideei eta Schengengo Itunean bazkide tutako herrialdeei EBko zirkulazio askeko eremuaren kanpo-mugak babesten laguntzeko. EBren agentzia denez, EBren aurrekontuekin eta Schengengo Itunean bazkide tutako herrialdeen ekarpenekin finantzatuta dago. 2021 aurretik, agentzia honek 1.000 agente inguru izango ditu, haien ia heren bat zerbitzu-komisioan bidaliak estatu kideek eta beren zerbitzu nazionalera itzuliko direnak, behin Frontexen agintaldia amaitu eta gero.

B) EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA ETA JAZARPENA BIDAIA ETA ERANTZUTENAKO ESTRATEGIAK

Emakume iheslariak egiten dituzten ibilbide espezifikoak dagokienez, emakume izate hutsagatik, indarkeria ugari, bortxaketak eta sexu-abusuak nabarmendu behar dira, beraiek bizi dituztenak eta beren aurka egiten dituztenak bai migrazio-prozesua partekatzen duten gizonak bai “migratio-agente” desberdinek. Nazio Batuen Erakundearen txosten batek jasotzen duenaren arabera, bost emakume iheslari eta desplazatutatik batek, gutxienez, sexu-indarkeria pairatu du. Izan ere, Europako herrialde batera iristea lortzen dutenean ere –iheslarietarako kanpalekuan itxita gelditzen dira herrialde horretan–, emakumeak behartuta egoten dira beren intimitatea ehunka gizonarekin partekatzea.

Hori gorabehera, egingo duten bidaiaren ibilbidea planifikatzen dute emakume horiek, arriskuak diren bideak saihestuz eta bidaiako indarkeria desberdinei **aurre egiteko estrategia desberdinak** erabiliz. **Itziar Gandariasek** egindako dokumentu honetan ageri dira estrategia horien adibideak: **“Estoy viva”. Cartografías resistencia de mujeres provenientes de África Subsahariana**¹⁷ (CEAR Euskadi). Haien artean hauek nabarmendu behar dira:

Gizon batekin lotzea. Hartara, sexuaren eta etxeko lanen truke –“bidaiako mutil-laguna edo senarra”–, gizon horrek bidaiak osoan edo zati batean emakumea babesteko konpromisoa hartuko du. Kasu askotan, gizon hori pertsonen trafikoko sareen parte da eta *guideman* moduan jokatzen du, gainera. Pertsona hori, esate baterako, Nigeriatik Marokora emakumeak eta nerabeak lekualdatzen aritzen da, gero prostituzioan arituko direnak edo salerosketa-sareek harrapatu eta engainatuko dituztenak.

Beloa eta musulmanen jantziak erabiltzea, gizonen eta mugetako poliziakideen erasoan eta bortxaketen aurrean babes-neurri moduan. Izan ere, belor horrek, egoera honetan, objektu babesle moduan jokatzen du, ukitu ezin diren emakume errespetagarri bihurtuta.

Ibilbide osoan antisorgailuak erabiltzea, baita hasi baino lehen ere, haurdun gelditzea saihesteko.

VI.3. NORAKOA EDO HELMUGA

Bidaia ez da amaitzen iheslariak norakora edo helmugara iristen direnean. Behin “lur segurua” daudenean, **administratio-prozedura** hasi behar dute, azkenean **nazioarteko babesa lortzeko**. Prozesu horren batez besteko iraupena 2 urtekoa da eta kasu gehienetan eskaerari ezezkia erantzuten diote¹⁸. Horrenbestez, legez kontrako egoeran gelditzen dira herrialdearen barnean.

2018an, itsasoz migratzaile eta iheslari gehien jaso zuen Europako herrialdea Espainia izan zen –58.569 pertsona, kopuru osoaren %51–. Hartara, 2006an izan zen “*cayuco* ontzien krisia” esan zitzaionaren kopuruak gailentzen dituzte beste horiek, orduan 40.000 lagun iritsi baitziren Kanarietara¹⁹.

¹⁷ “Estoy viva” CEAR Euskadi

¹⁸ 2018an, ezezkia erantzundako eskaeren portzentajea %76koa izan da.

¹⁹ 2019ko urteko txostena: <https://www.pear.es/informe-anual-2019/>

A) GIZON ETA EMAKUMEEN INKLUSIO-PROZESU OROKORRA

Inklusiotzat hartzen dugu **migratzaileak gizarte berrira egokitzeko eta hartan gizarteratzeko prozesua**. Prozesu konplexua da –izan ere, ez baita bakarra, lineala eta aldagaitza, baizik eta zeharkakoa eta multidimentsionala da–, eta faktore desberdinek baldintzatzen dute, bai migratzen duen pertsonari dagozkionek –faktore pertsonalak, egoerarenak eta kulturalak– bai harrera egiten dion gizarteari dagozkionek ere –faktore ekonomikoak, lanekoak, sozialak, kulturalak, idiomatikoak, hezkuntzakoak, burokratikoak, psikologikoak eta abar–.

Inklusio-prozesu hori, askotan, harrera egiten duten gizartearen izaerak markatzen du. Gizarte horiek, askotan, asimilazionistak izaten dira, lurraldera iristen diren pertsonen beren kultura barneratu behar dutela ulertzen baitute, eta ez hainbeste kulturartekoak, bizikidetzat bultzatu eta jatorri desberdinetako pertsonen eratzutako gizartearen kultura-dibertsitatearen balioa nabarmentzen dutenak. Gogoan izan behar da, gainera, inklusio-prozesu horrek **ez dakarrela berekin oinarritzeko eta berehalako beharrei erantzutea bakarrik** (ostatu hartzea, mantenua, enplegua, etxebizitza...), baizik eta **iheslarien** autonomia, duintasuna eta **ongizatea** bultzatzera bideratutako jarduketak ere bai, hala nola: zerbitzuak, baliabideak eta testuinguru soziokulturala ezagutzea; testuinguru berrian zailtasunei eta erronkei erantzuteko eta haiei aurre egiteko gaitasunak garatu eta indartzea; eta kulturarteko bizikidetzako prozesuak (aurrerago helduko zaie azken horiei).

Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen inklusio-prozesua Espainiako gizartearen benetako oztopo-lasterketa da. Inklusio horretarako oztopoen artean hauek nabarmendu behar dira: **egokitzen den soziokulturalerako zailtasunak** –bizi den tokiko aldaketen garapena, aldaketa teknikoak, ekoizpenekoak, komertzialak, migratzailekoak, normatiboak, antolaketakoak, ideologikoak edo hizkuntzakoak, zeinen bidez pertsonak ingurune berrira egokitzen diren²⁰–; **babes-sistema gehiegi burokratizatzearekin lotutako zailtasunak** –migratzailearen eragin psikosozialarekin lotutako zailtasunak, etxebizitza izateko eskubiderik ez izatea edo lan-merkatuan ez sartzea...–. Nabarmendu behar da **zailtasun horiek eta eskubiderik ez izatea komunak direla biztanleriaren beste sektore batzuetan**. Horrenbestez, ez dira migratzaileei eta iheslariari soilik lotutako arazoak, baizik eta arazo orokortuak dira (langabezia, etxebizitzarik eskuratzeko aukerarik ez izatea...) eta migratzaileen kasuan areagotu egiten dira. Izan ere, migratzailearen prozesu behartu horrek berezkoak dituen faktore gehigarriak gertatzen dira, eta horrek handitu egiten du kolektibo horien kalteberatasuna. Hori horrela izanik, estrategia sozialek eta erantzun politikoek arreta jarri behar dute, batetik, migratzaileen berriazko zailtasunak alderantzizkatzean, eta, bestetik, **pertsona guztientzako eskubideak handitzearen alde egitean**, gaitzespen-diskurtsoak saihestuz, baliabideen lehiaren mito faltsuarengatik.

Horrez gain, gure gizartearen **migratzaileen eta iheslarien** inklusio-prozesuak erraztu eta haietan lagun egiteko esku hartzeko orduan garrantzitsua da ohartzea pertsona horiek **subjektu aktiboak direla, ez esku-hartze baten xede**. Alde horretatik, arrakastaren gakoa pertsona protagonista erdian jartzea da, bere interesak, premiak eta gaitasunak. Horretarako beharrezkoa da, beren gaitasunetatik abiatzea ez ezik, lagun-egitea “pertsonekin” diseinatzea ere, ez “pertsonentzat”.

20 GIMÉNEZ, C.; GÓMEZ, P.; MARTÍNEZ, A. (2009) Promoviendo la convivencia ciudadana intercultural en barrios de alta diversidad: Ideas y experiencias para una praxis comunitaria.

B) KULTURARTEKO BIZIKIDETZA

Kultura-dibertsitateekiko errespetua dagoen bizikidetza-eredua dakar **kulturarteko bizikidetzak**, eta, gainera, dibertsitate horien balioa nabarmentzen da, gizarterako aberastasuntzat jotzen baitira. Eredu horren pean, **harreman positiboak eta komunikazioa ezartzen dira kultura desberdinak dituzten pertsonen artean, berdintasun-maila batean eta komuna denean enfasia jarrita.**

Ez dira nahasi behar kulturartekotasuna eta kultura-aniztasuna, nagusiki bi arrazoi hauengatik. Lehenbizi, azken horrek soil-soilik kultura askotarikoak batera egotea ekartzen duelako, eta ez haien arteko elkarriketa; eta, gainera, jeneralean, gehiengoaren kulturaren nagusitasunaren pean gertatzen da. Eta bigarrenik, kulturarteko ereduak antolatzen dituelako dibertsitateak eta eragin-truke positiboak ezartzen dira, eredu multikulturean ez bezala, non batera egoteko harremanak ezartzen diren, harreman ahulduekin.

Hori gorabehera, ondokoa zehaztu behar da. Alde batetik, kulturarteko bizikidetzak harreman positiboak sustatzeak ez du esan nahi gatazkarik sortzen ez denik, esparru horren pean tentsioak eta arazoak ere izaten baitira, baina haiei aurre egiteko hitz egin, negoziatu eta bitartekotza egiten da. Horrenbestez, elkartzeko guneak eta gatazkak positiboki kudeatzeko estrategiak sustatzea da kontua. Eta bestetik, harremanak berdintasun-maila batean ezartzeak ez du esan nahi hasieratik dauden berdintasunik ezak ukatu edo alde batera uzten ditugunik. Hartara, horregatik bultzatu behar dira kultura eraikitzeko eta eztabaidatzeko gune dialogikoak, besteak beste, egiturazko aldaketak, politikoak, erakundeetakoak eta sozialak sustatzen lagunduko dutenak. Horri guztiari gehitzen zaio kulturartekotasuneko ereduak kultura askotarikoen gaitasun aktiboa ulertzen duela, bi norabideko egokitzapen-mugimendua, eraldatzekoa eta elkarrengandik ikastekoa ezarriz. Eta hori eredu asimilazionistatik urrun dago (kultura nagusira egokitu behar dutenak migratzaileak direla uste dutenak).

C) ZURRUMURRUAK, AURREIRITZIAK, ESTEREOTIPOAK, BEREIZKERIA ETA ARRAZAKERIA MIGRATZAILE ETA IHESLARIEKIKO

Kulturarteko bizikidetzak landu nahi badugu, garrantzitsua da kontuan hartzea hari **negatiboki eragiten dioten faktoreak**. Haien artean nabarmendu behar da hauen artean dagoen katea: **zurrumurrua → aurreiritzia → estereotipoa → bereizkeria eta arrazakeria**. Horretarako, zurrumurruen aurkako unitate didaktikoa ikusi eta aztertzeraz animatu nahi zaituztegu, kulturarteko gizarteak sortu eta bereizkeria eta arrazakeria hori erroetik ateratzeko estrategia moduan.

Zuen interesekoak izan daitezkeen beste unitate didaktiko batzuk bezala, lotura honetan klik eginda aurkituko duzue:

<http://www.cineddhh.org/materiales-didacticos>

D) EMAKUME MIGRATZAILE ETA IHESLARIEN INKLUSIO-PROZESUAK ETA AHALDUNTZEA

Lehenago nabarmendu dugunez, emakumeen kasuan bi prozesu gertatzen dira. Alde batetik, **migrazio- eta babes-prozesuak berezko dituen ibilbide orokorrak areagotzea** emakumeen kasuan, helmuga den herrialdera legezko bideen eta bide seguruen bitartez iristen direnak, besteak beste, hegazkineko txartelaren bidez. Eta bestetik, gainera, **emakume izateagatik berariazko ibilbideak bizitzea**, adibidez, haien aurka gauzatzen den indarkeria bai jatorrian, bai bidaian eta bai helmuga diren herrialdeetan ere. Horrek berekin ekartzen ditu **zailtasunak eta oztopoak** emakume horientzat, gizonak izaten ez dituzten zailtasunak eta oztopoak. **Norakora iristean eta han egotean**, hauek nabarmendu ahal dira²¹:

- **Familiaren eta zainketen gainkargari** lotutako zailtasunak eguneroko bizimoduan. Alde horretatik, nabarmendu behar da familia gurasobakar amadunen presentzia handia (lanaren sexu-bereizketa).
- **Betetzen diren lanpostuetarako gehiegizko prestakuntza eta laneko diskriminazio- eta abusu-egoerak eragiten dituzten lan-baldintzak**, eta, ondorioz, enplegua antsietate- eta estres-iturria da –lan-merkatuaren desregularizazioa, lanaren sexu-bereiztea (enplegu feminizatuak baldintza kaskarrekin) eta enpleguak emakumeen osasun psikosozialean dituen ondorioak–. Alde horretatik, nabarmendu behar da enpleguren bat duten emakume migratzaileen %50ek adierazten dutela lanpostu hori ez dela egokitzen ez beren prestakuntzara ez dauzkaten gaitasunetara ere, hartarako gehiegizko prestakuntza baitute. Desparekotasun hori, beste asko bezala, oro har gertatzen da emakumeen kasuan, baina areagotu egiten da emakume migratzaileen kasuan, estatistiketan jasota dagoen moduan, haien erdiek pairatzen baitute.
- **Etxebizitzaren eta zainketen arloari lotutako lanak egin behar izateko** joera, prekaritate eta lan-esplotazioko indize handiekin (lanaren sexu-bereizketa eta lan- eta soldata-diskriminazioa).
- **Nork bere burua zaintzeko denborarik ez izatea, beste ardura batzuk edo beste pertsona batzuen beharrak lehenesteagatik** (genero-identitate femeninoa). Eta horrek ondorioak ditu osasunean, hurrengo puntuan ikusiko den moduan.
- **Osasunari** dagokionez, nabarmendu behar da **generoak eragiten diola**. Hala, emakume izateagatik onartutako rola eta rol horiei lotutako ardurak osasunerako arrisku-faktoreak dira (Velasco, 2008). Migrazioaren esperientziak ere ukitzen du osasuna. Izan ere, %36k adierazten dute beren osasunak pitin bat egin duela okerrera, eta %7,5ek asko egin duela okerrera. Emakume hauen egiturazko interseksionalitate-egoerak bizitzeak (generoa eta migrazioa) era esponentzialean handitzen du beren osasunerako arriskua. Eta horri gehitu behar zaizkio jatorrizko herrialdeetan, bidaian eta norakoan bizi izandako indarkeriaren ondorioak, bai maila psikologikoan eta bai fisikoan ere.
- **Erakundeen baliabideak ez egokitzea emakume migratzaileen kolektiboaren errealitateetara**. Nahiz eta lehen eskutik ezagutu emakume migratzaileen antolaketa-zailtasunak –areagotu egiten direnak familia gurasobakar amadun baten buru badira–, murriztaileak diren edo beren lan-erantzukizunekiko eta familia-ardurekiko errealistak ez diren ordutegietan egiten jarraitzen dira ekintzak eta proposamenak. Eta horrek berekin dakar kolektibo honekin egiten den esku-hartze sozialean genero-ikuspegia ez transbertsalizatzea.

Hori guztia gorabehera, funtsezkoa da, oro har, emakumeen eta, bereziki, emakume migratzaileen eta iheslarien (interseksionalitatea) kalteberatasun handiagoko egiturazko egoera kontuan hartzeaz gain, agente aktibo direla aintzat hartu eta horretan arreta jartzea, erresistentziako eta bizirik irauteko estrategiak garatzen dituztenak. Alde

horretatik, ahalduntzea mekanismo nagusia da emakumeen beharrei erantzuteko eta beren eskubideak gauzatzeko, eta, era berean, ikuspegi giltzarria, jatorrizko herrialdeetan, iragaitzazkoetan eta harrera egiten dietenetan egin daitekeen esku-hartze sozialean. Prozesu horren bidez, emakume horiek martxan jartzen dituzte, bakarka eta taldeka, beren trebetasunak eta gaitasunak, estrategiak garatzen dituzte eta erabakiak hartzen dituzte, genero-sistemak, sistema kapitalistak eta migrazio behartuek eragindako bereizkeria eta indarkeria desberdinei aurre egiteko.

VII. JARDUERAK

Esparru teorikoan bezala, **jardueretan ere bi mailatan egingo dugu lan: orokorrean eta berariazkoan. Hartara, lehenbizikoan berdintasunik ez sozialeko ibilbide orokor** esaten zaienak jorratuko dira, **gizonek eta emakumeek partekatzen dituztenak; bigarrengoan, berriz, berariazko ibilbideak, soil-soilik emakumeen kasuan dutenak eragina.** Biak ala biak migrazio behartu eta/edo babeseko prozesuei lotuta daude (jatorrizko lekua utzi behar izatea gatazka beliko batengatik, esate baterako, eta etxea galtzea), baina emakumeen egiturazko egoerak ekartzen du gizonek ere bizi dituzten egoerak bizi behar izatea emakumeek baina areagotuta (etxearen jabe moduan ez inskribatuta egotea eta senarra hiltzean kanporatuak izatea, adibidez). Era berean, emakumei bakarrik eragiten dieten beste egoera batzuk ere bizi izaten dituzte, generoko indarkeria jatorrian edo bidaian (bortxaketak, esate baterako) edo iritsi diren tokian (beren zainketa-gaitasunak esplotatzea, era ordainduan lan egitea eragozten dietenak, eta, horrenbestez, ekonomikoki independenteak izatea). Hori guztia aintzat hartuta, saio batzuk erreserbatu dira, gizonekin alderatuta, emakumeek bizi behar izaten dituzten berariazko egoera batzuei heltzeko.

Ikasleekin garatzeko **jarduerak egituratzea bost blokeren bidez egingo da, eta bakoitzak bere saioak izango ditu:**

- 1.- **1. blokea.** Sarrera egitekoa. 1. saioa. Abiapuntu moduan, gaia aurkeztuko da abordatze intuitibo baten bidez: bizipenetatik abiatuko da hurrengo saioetarako ikasleengan jakin-nahia eta kezka pizteko asmoarekin, eta migrazio behartuen gaian jarrera kritikoa sustatzeko.
- 2.- **2. blokea.** Jatorrizko herrialdeetatik ihes egiteko eta bidaiatzeko kausak. 2. saioa. Ihes egiteko kausa orokorrak. Eta 3. saioa. Bidaia. Kontsiderazio orokorrak.
- 3.- **3. blokea.** Jatorrizko herrialdeetatik ihes egiteko kausak generoko arrazoiengatik, generoko indarkeriengatik jazartzea, eta bidaian bizirik irauteko estrategiak, emakumeenak berariazkoak. 4. saioa. Ihes egiteko kausak generoko arrazoiengatik. Eta 5. saioa. Bidaian emakumeenganako indarkeria eta jazarpena, eta emakumeek erantzuteko dituzten estrategiak.
- 4.- **4. blokea.** Inklusio-prozesuak eta kulturarteko bizikidetza helmugan. 6. saioa. Inklusio-prozesua eta bere hedadura. Eta 7. saioa. Kulturarteko bizikidetza, zurrumurruak, aurreiritziak, estereotipoak eta bereizkeriak.
- 5.- **5. blokea.** Amaierakoa. 8. saioa. Hausnarketa integrala, eta ekiteko eta eraldatzeko guneak proposatzea.

Unitate didaktiko honetan, nagusiki, CEAR batzordeak hartu eta babestu dituen pertsonen testigantzen bideoekin egingo da lan, eta bai migratzaileekin eta iheslariekin lan egiten duten hainbat erakunderen sentsibilizazio- eta salaketa-kanpaina

desberdinetan egindako bideoekin ere. Egindako proposamenean oinarrituta egituratuko dira, eta xedeak galdera hauei erantzungo die:

1. Zer esan nahi du iheslaria izateak?
2. Zein dira joateko edo ihes egiteko kausa orokorrak gizonengan eta emakumeengan, eta, bereziki, azken horiengan?
3. Nolakoa da bidaia hori batzuentzat eta besteentzat?
4. Eta zer gertatzen da helmugako herrialdera iristean gizonekin eta emakumeekin?

Bideoekin lan egiteaz gain, saio desberdinak garatzeko edo haietan sakontzeko interesez jabetzen diren beste material batzuk hartuko dira kontuan (unitate didaktiko honen eranskinetan jasoko diren materialak). Bloke tematikoen garapena malgua izan ahal izango da, eta testuinguruaren eta ikasleen ezaugarrietara egokitu.

1. BLOKEA. SARRERA EGITEKO BLOKEA

1. SAIOA. SARRERA. MIGRAZIOAK ETA BABESA

JARDUERAREN DESKRIBAPENA ETA IKASLEEN ANTOLAKETA

Saio honetan, **bi jarduera** proposatuko dira: *maparen dinamika* eta *konparazio historikoa*.

Aurreneko jardueran –*maparen dinamika*–, begirada kritiko batetik, “bertako pertsonak” eta “migratzaileak” nola definitzen ditugun landuko da.

Horretarako, irakasleak, dinamika hasteko, ozen eta gelakide guztientzat hau galdetuko du: *nor da hemengoa?* Ondoren, ikasle guztiei, 5 koloretako post-itak banatuko dizkie: horiak, laranja, gorriak, berdeak eta urdinak. Horian, ikasleek idatziko dute beraiek non jaio ziren; laranja, non jaio ziren aita eta ama, beren bi amak, beren bi aitak edo beren familietan erreferentziazkoak diren figurak; gorriak, non jaio ziren amona eta aitona; berdeak, non jaio ziren birramona eta birraitona; eta urdinean, non jaio ziren herenamona eta herenaitona. Behin post-itetan jaiotzeak idatzita, ikasleak altxatu egingo dira eta paretan itsatsiko dituzte: erdigunea Iruñea eta Iruñerriko herriak izango dira, eta post-itak urrundu egingo dituzte beste komunitate, herrialde edo kontinente batzuetarantz. Irakasleak 1. eranskineko, 1. dinamikako galderak egingo dizkie ikasleei.

Jarduera honen bidez, ikusgai egin nahi da nola geure historian, historia familiar eta sozialean, migrazioak ere gertatu diren. Horrek ahalbidetzen digu hausnartzea non dagoen *hemengoa* zein den eta *migratzailea* zein den definitzen duen muga, eta noiz pasatzen garen kategoria batetik bestera.

Bigarren jardueran –*konparazio historikoa*–, migratzaileekiko enpatia garatu nahi da, joan den mendean espainiarrek egin zituzten migrazio masiboak gogora ekarrita. 36ko gerraren eta frankismoaren ondorioz, pertsona askok ihes egin behar izan zuten, besteak beste, Frantziara, Argentinara eta Mexikora. Horretarako, irakasleak 1. eranskineko 2. dinamikako argazkiak proiektatuko ditu –joan den mendean Espainiatik ihes egin zuten pertsonak orain Europara iristen saiatzen direnekin alderatzen dituzte–, eta eztabaida kolektiboa egingo da, eranskin horretan jasota dauden hainbat galdera baliatuta.

Saio honetan, migrazioei buruzko begirada zabala eman nahi zaie ikasleei, migrazio horien konplexutasuna eta zeharkakotasuna ulertzen lagunduko diena, eta “migratzaileen” kontzeptuaren inguruan begirada kritikoa eta zabala eskuratzen lagunduko diena. Migrazioak beti existitu izan dira, eta denok, modu batera edo bestera, migratuak gara edo izan gara uneren batean. Horrenbestez, esplorazio-dinamika hauen

bidez, jatorrien eta kulturen dibertsitateari buruzko kontzientzia harrarazi nahi da, bai ikasgelaren barnean bai eta kanpoan ere. Migrazioei dagokienez ikasleek dituzten esperientziak eta interesak hartuko dira abiapuntutzat; izan ere, beren familiaren eta testuinguruaren historia ezagutzeak beste pertsona batzuen bizipenak hobeki ulertzen lagunduko baitie. Gainera, gazteek migrazioei eta babesari buruz dituzten interesen, kezken eta jakin-nahien azterketa egiten saiatuko da. 1. eranskineko 2. dinamikako ideia giltzarrien edukiak sendotzeko lan egingo da, saio osoaren xedea baitira.

Materialak: koloretako post-itak, errotuladoreak. Lehen jarduerarako, ikasgelako arbela edo pareta bat erabiliko da. Bigarrenorako, 1. eranskineko 2. dinamikako argazkiak baliatuko dira.

Denbora: 1. saioa. *Maparen dinamika*, 20 minutu. *Konparazio historikoa*, 20 minutu. Azken gogoeta, 10 minutu. Guztira, 50 minutu.

2. BLOKEA. JATORRIZKO HERRIALDEETATIK IHES EGITEKO ETA BIDAIATZEKO KAUSAK (2. ETA 3. SAIOAK)

2. SAIOA. IHES EGITEKO KAUSA OROKORRAK

JARDUERAREN DESKRIBAPENA ETA IKASLEEN ANTOLAKETA

Jarduera hasteko, irakasleek **taldeak egingo dituzte ikasleen artean**, bi ezaugarri hauek aintzat hartuta: lehenbizi, kontuan hartuko da taldekideak gehienez ere 5 izatea (edonola ere, ikasgelan dagoen ikasle-kopuruaren arabera egin beharko dira taldeak); bigarrenik, talde horiek sexuaren arabera ere egitea. Hartara, hauek egongo dira: neskak baino ez dituzten taldeak, mutilak baino ez dituzten taldeak eta talde mistoak. Sexuan oinarritutako banaketa triangeluar hau proposatzen da, Mercedes Bengoecheak (2005) esaten duen moduan, neskek eta mutilek komunikazio-eredu desberdinak dituztelako, eta, eskuarki, mutilena nagusitzen delako. Arrazoi horrengatik garrantzitsua da espazio txikiak eta erosoak sortzea neskentzat, gainerakoan, gizartean naturalizatutako joera baita mutilen diskurtso hegemonikoaren erreproduzio hori berriro gailentzea talde mistoetan, nesken iritziak isilarazita. Horrenbestez, helburua da neskei eta mutilei entzutea, eta bai talde mistoetan esaten dena ere, eta egiaztatzea ea azkenean diskurtsoren bat era orokortuan hartzen den edo ez. Behaketa hori, bere horretan, emaitza bat da.

Ikasleak taldeka banatu eta gero, irakasleak bultzatuko ditu **pentsatzera**, talde horien barnean, zein izaten diren pertsonak **beren etxeak uztera behartzen dituzten arrazoiak**. Horretarako, 2. eranskineko 1. puntuan dauden galderak lagungarriak izango zaizkio.

Horren ondoren, **“Migrar no es delito” bideoa emango da, Euskadiko GGKEen Koordinakundearena**. Aurretik egindako taldeen banaketari eutsita, 2. eranskineko 2. puntuko galderei erantzungo zaie, eta talde bakoitzeko kide batek erantzunak azalduko ditu eta eztabaida kolektiboa egingo da ikaskide guztien artean (osoko eztabaida).

Saio honetan, ihes egiteko arrazoi nagusiak eta pertsonak migratzera bultzatzen dituzten egiturazko kausak eman nahi dira ezagutzera. Horrez gain, nazioarteko babesaren esparru kontzeptualera hurbiltzea da asmoa, “iheslari” terminoaren bidez. Halaber, migratzeko kausa desberdinei ematen zaizkien erantzun politikoak eta legezkoak ulertzen saiatuko da.

Amaitzeko, **irakasleak laburtu egingo du migrazioen kausa nagusiei buruz ikasitakoa** eta Genevako Konbentzioaren bidez definitzen den asilo-eskubidea azalduko du (esparru kontzeptuala, 10. orrialdea).

Saioaren xedea da 2. eranskinean ageri diren eduki giltzarriak sendotzea.

Materialak: arbela eta proiektorea, “*Migrar no es delito*” bideoa ikusteko (Euskadiko GGKEen Koordinakundea), 2. eranskina.

Denbora: 2. saioa. Taldeen banaketa eta hasierako gogoeta, 10 minutu. Bideoa ikustea eta haren gainean lan egitea, 30 minutu. Irakaslearen gogoeta, 10 minutu. Guztira, 50 minutu.

2. BLOKEA. JATORRIZKO HERRIALDEETATIK IHES EGITEKO ETA BIDAIATZEKO KAUSAK (2. ETA 3. SAIOAK)

3. SAIOA. BIDAIA. KONTSIDERAZIO OROKORRAK

JARDUERAREN DESKRIBAPENA ETA IKASLEEN ANTOLAKETA

Saio honetan, **mugak ixteko politikek beren jatorrizko herrialdeetatik ihes egiten duten pertsonengan dituzten ondorioak** ezagutarazi nahi dira, eta nola politika horiek zuzenean eragiten duten pertsonen bizitzetan, oso negatiboa eta txarra den modu batean.

Lehenik eta behin, **irakasleak taldetan banatuko ditu ikasleak**, lehenago aipatutako irizpideei jarraituta (5 lagunetik beherako taldeak eta sexua aintzat hartuta egindakoak). **Talde bakoitzak bidaia bat antolatu eta prestatu beharko du.** Horretarako, irakasleak 3. eranskineko 1. jarduerako txartelak banatuko dizkie talde guztiei. Txartel horietan, hain zuzen, taldea eratzen duten pertsonen ezaugarriak eta egingo duten bidaiaren baldintzak azaltzen dira. Taldeen erdiek A txartela edukiko dute, eta beste erdiek B txartela. Behin ibilbidearen plangintza eginda, talde bakoitzak plana azalduko die gainerako ikaskideei. Ondoren, bi bidaien arteko diferentziari buruzko gogoeta egingo da, galdera honi erantzun nahian: zergatik daude halako desberdintasunak?

Jarduera honen bidez lortu nahi da ikasleak identifikatzea behartuta migratzen duten eta bidaia seguru baterako pasaporte edo bisa bat eskuratzeko aukerarik ez duten pertsonen bizi dituzten zailtasunekin.

Idea hori are gehiago sendotzeko, **irakasleak Unicefen “*El viaje de tu vida*” bideoa emango du**, 3. eranskineko 2. jardueran dagoena. Eta horrez gain, eranskin horretan bertan dauden galderak egingo ditu, bideoari buruzkoak.

Amaitzeko, **irakasleak CEAR batzordearen “*Sin vías legales, dinero a raudales: el gran negocio a costa de las personas refugiadas*” bideoa proiektatuko du**, 3. eranskineko 3. jardueran dagoena. Bideo horretan, zehazki, azaltzen da asiloa eskatzeko legeko biderik ez egoteak pertsonen salerosketa elikatzen duela. Eranskin horretan xede horretarako jasotako galderen gainean eztabaida egingo da, gainera.

Materiala: bidaia-txartelak, talde bakoitzerako inprimatuta, eta argazkiak.

Denbora: 3. saioa. Goazen bidaiari, 20 minutu. Bideoak ikustea eta haien gainean hausnartzea, 30 minutu. Guztira, 50 minutu.

3. BLOKEA. GENEROKO ARRAZOIENGATIKO KAUSAK; JAZARPENA GENERO-INDARKERIARENGATIK; ETA BIDAIA BIZIRIK IRAUTEKO ESTRATEGIAK, BERARIAZ EMAKUMEENAK DIRENAK (4. ETA 5. SAIOAK)

4. SAIOA. GENEROKO ARRAZOIENGATIKO KAUSAK

JARDUERAREN DESKRIBAPENA ETA IKASLEEN ANTOLAKETA

Saio honek bi zati edukiko ditu. Aurrenekoan, ideia-jasa egingo da, **ikasleek “generoko arrazoiengatik” ihes egiteko daudela uste duten kausen gainean**. Irakasleak, arbelean idatziko ditu kausa horiek.

Bigarrenengan, **“Refugio por género” bideoa ikusiko da**, CEAR batzordearen “Persecución por motivos de género” gida didaktikoaren barnean dagoena (4. eranskina). Xedea izango da, hain zuzen, generoarekin lotuta dauden sei jazarpenerako arrazoiak identifikatzea.

Gero, **irakasleak 6 taldetan banatuko ditu ikasleak**, 5etik beherako taldeen irizpideari (dauden ikasleak kontuan hartuta) eta sexuen arabera banaketa-irizpideari jarraituta. Helburua izango da **bideoan ageri diren testigantzetako baten gainean lan egitea**, bideo horretan generoko arrazoiengatik ikusitako ihes-arrazoiak identifikatuta eta 4. eranskineko galderei erantzunda.

Lan hori egin eta gero, **talde bakoitzeko bozeramaileak lortu dituzten emaitzak eta ondorioak azalduko ditu**, eta, jarraian, eztabaida kolektiboa egingo da osoko taldean, generoko arrazoiengatik ihes egiteko dauden kausen gainean.

Materialak: arbela, ordenagailua eta proiektorea, “Refugio por género” bideoa ikusteko.

Denborak: 4. saioa. “Refugio por género” bideoa ikustea, 10 minutu. Testigantza bakoitzaren analisia eta gogoeta, 20 minutu. Batera jartzea, 20 minutu. Guztira, 50 minutu.

3. BLOKEA. GENEROKO ARRAZOIENGATIKO KAUSAK; JAZARPENA GENERO-INDARKERIARENGATIK; ETA BIDAIA BIZIRIK IRAUTEKO ESTRATEGIAK, BERARIAZ EMAKUMEENAK DIRENAK (4. ETA 5. SAIOAK)

5. SAIOA. BIDAIA EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA ETA JAZARPENA, ETA EMAKUMEEK ERANTZUTEKO DITUZTEN ESTRATEGIAK

JARDUERAREN DESKRIBAPENA ETA IKASLEEN ANTOLAKETA

Saio honetan, **mugak ixteagatik emakumeek, berariaz, bizi izaten dituzten ondorioak ezagutaraziko dira**. Ibilbidean pairatzen dituzten indarkeria-mota desberdinak eta, era berean, emakumeek berek sustatzen dituzten erantzunak eta estrategiak aztertuko dira.

Horretarako, **irakasleak taldetan banatuko ditu ikasleak**, lehenago aipatutako irizpideei jarraituta (5 lagunetik beherako taldeak eta sexua aintzat hartuta egindakoak), eta 5. eranskineko dokumentuak banatuko ditu. Talde bakoitzak **testigantza beraren gainean lan egingo du**, oso-osorik irakurri beharko dena, izan ere, jatorriaren atalak generoko arrazoiengatik ihes egiteko kausak errepasatzeko balioko baitu, eta testuaren gainerako zatiak bidaiaren eta helmugaren zatiari helduko baitio.

Irakasleak jardueraren helburua azalduko die ikasleei: **protagonista diren emakumeek bizirik irauteko dituzten estrategiak eta mekanismoak identifikatzea ihes egitean, bidaian eta helburuan.**

Talde bakoitzean, pertsona batek ozen irakurriko du testigantza eta gainerako taldekideek identifikatu egin beharko dituzte planteatzen diren erresistentziak eta estrategiak testigantza horretan.

Jarraian, **ikasgelako gainerako taldekideekin batera jarriko dira**, eta eztabaidarako tarte izango da. Tarte horretan, 5. eranskin horretan jasotako galderak egingo dira.

Materialak: 5. eranskineko testigantzaren kopiak, banatzeko.

Denbora: 5. saioa. Testigantzaren analisia, 35 minutu. Baterako hausnarketa, 15 minutu. Guztira, 50 minutu.

4. BLOKEA. INKLUSIO-PROZESUAK ETA KULTURARTEKO BIZIKIDETZA HELMUGAN (6. ETA 7. SAIOAK)

6. SAIOA. INKLUSIO-PROZESUA ETA BERE HEDADURA

JARDUERAREN DESKRIBAPENA ETA IKASLEEN ANTOLAKETA

Saio honen bidez sustatu nahi da **ikasleek gogoeta egitea “herrialde seguru” batera iristen diren pertsonen beren inklusio-prozesuan dituzten baldintza eta mugen gainean**. Horretarako, **beste pertsona batzuen azalean jartzeko jarduerak egitea proposatuko da, eta norberaren jarrera zalantzan jartzekoak**; hartara, jakitun izateko zer-nolako aukerak ditugun eta zer-nolako desabantaila-egoeran dauden iheslariak eta migratzaileak. Horretarako, *Amildegí-lerroaren dinamika* erabiliko da.

Argitu behar da –nahiz eta dinamika honen bidez “erreferentziazko pertsonaien edo pertsonaia arketipikoen” rola jokatzaren duten pertsona batzuekin lan egiten den– pertsona horiek guztiak askotarikoak direla, ez dietela erantzuten aurretik izendatutako etiketei. Horrenbestez, inklusio-prozesuak gauzatzeko unean bizi izaten dituzten baldintzak eta mugak hausnartzera bideratuta egongo da saioa.

Irakasleak 6. eranskineko **fitxak banatuko ditu, “gure historiako erreferentziazko pertsonaia” horiek erakutsiko dituztenak**. Askotariko ezaugarriak izango dituzte: iheslariak, bertakoak, egoera sozioekonomiko, pertsonal, psikologiko, prestakuntzako-laneko, juridiko eta generoko desberdinetan. Haietako bakoitzak ponte-izen bat izango du. Izen horiek etiketa itsasgarrietan jarriko dira eta ikasgelako ikasle desberdinei emango zaizkie. Gerta liteke ikasle guztiek ez edukitzea erreferentziazko pertsonaia baten ponte-izena duen txartela. Hartara, etiketa itsasgarririk ez duten pertsonen beren bizi-egoera antzeztuko dute.

Behin banaketa hori egien denean eta denek argi dutenean zein den “beren pertsonaia”, pertsona guztiak gelaren erdian kokatuko dira. Gainera, **irudizko lerroa sortuko dugu, dinamika egin bitartean pertsonak banatuko dituenaren arabera**.

6. eranskineko 1. jardueran dauden **galderak egingo ditu irakasleak**, egokitu zaion erreferentziazko pertsonaiaren edo bere egoera pertsonalaren arabera egongo liratekeen tokian koka daitezen ikasleak. Hartara, egoera hobean dauden pertsonak ezkerretara egongo dira eta egoera okerragoan daudenak, berriz, eskuinetara, irakasleak egiten dituen galderei erantzuten doazen neurrian, pertsonaia/ikasle bakoitzak dituen bizi-baldintzak kontuan hartuta. Galdera bakoitzarekin, pertsona guztiak berriro kokatu behar dira. Ikasleek argi ulertu behar dute erantzunek “hemen eta orain” testuinguruari erantzuten diotela.

Ondoren, izendatutako etiketak dituzten pertsonen 6. eranskinen 2. jarduerako galderak egingo dizkie irakasleak, eta gainerako ikasleak animatuko dituzte informazioa biltzean eta egiturazko posizioa aztertzean parte hartzerako.

Amaitzeko, etiketak kenduko dira eta ikasle guztiek amildegi-lerroan kokatu beharko dute beren burua antzeztuz, eta 6. eranskinen 3. jarduerako galderei erantzun beharko diete.

Jarduera amaitzeko, egindako lanari buruzko gogoeta egingo da, 6. eranskinen 4. jarduerako galderari erantzunez.

Materialak: profilen txartel inprimatu eta moztuak (6. eranskina) eta kontakizun desberdinetako pertsonen izenak dituzten etiketa itsasgarriak.

Denbora: 6. saioa. *Amildegi-lerroaren dinamika*, 35 minutu. Ondorioak, 15 minutu. Guztira, 50 minutu.

4. BLOKEA. INKLUSIO-PROZESUAK ETA KULTURARTEKO BIZIKIDETZA HELMUGAN (6. ETA 7. SAIOAK)

7. SAIOA. KULTURARTEKO BIZIKIDETZA ETA IMAGINARIO KOLEKTIBOA IHESLARI ETA MIGRATZAILE BEHARTUENGANAKO

JARDUERAREN DESKRIKAPENA ETA IKASLEEN ANTOLAKETA

Saio honen xedea da **hedabideenganako begirada kritikoa garatzea**, migratzaileen gainean ematen den irudia aztertuz eta bai irudi horrek nola indartzen dituen gizarteak migratzaile horienganako dituen jarrerak. Zenbait gauza identifikatuko dira: alde batetik, nola eragiten duen irudi horrek ezagutzen ez ditugun pertsonekin harremanak izateko dugun moduari, haiei buruz ditugun aurreiritziak; eta bestetik, gure gizarteetan dauden diskurtso arrazistak, haien aurrean jarrera kritikoa sustatu nahian.

Saio honek bi jarduera edukiko ditu.

“**Berria**” izenburua duen jardueran, aurrenekoan, planteatuko zaie ikasleei ikaskide berri baten lehen eskola-eguna dela imajinatu behar dutela. Irakasleak 6 taldetan banatuko ditu ikasleak, kideen kopuruaren eta sexuaren arabera banaketaren irizpideak kontuan hartuta, jada metodologikoki ezarrita daudenak. Talde bakoitzeko kide bat ikasgelatik kanpo aterako da, eta gero ikaskide berriaren rola jokatu du. Irakasleak azalduko du taldeen erdientarako (3) ikasgelara iritsi den “pertsona berria” oso arazotsua izango dela, aurreko ikastetxean lapurreta- eta droga-arazoak izan dituela eta ikaskideekin oso jarrera txarra duela. Beste taldeentarako (3), ordea, “pertsona berriak” oso ospe ona izango du. Aurreko ikastetxean nota bikainak izan ditu eta, gainera, oso ona da saskibaloian jokatzen eta pianoa jotzen du. Ikaskide berria gelan sartuko da eta ikaskideekin interakzioan ariko da, informazioa eskatzeko, ohar-liburuxka bat uzteko eskatzeko eta eskolen ondoren elkarrekin gelditzeko eskainiko du. Gero, “berriak” gainerako ikaskideei adieraziko die nola sentitu den, zer “harrera” egin dioten.

“**Artikulu barrengarria**” izena duen jardueran, bigarrenengoan, ikasleei planteatuko zaie oso ospetsua den egunkari bateko lantaldea direla, baina alderantzizko munduan. Migratzaileei buruzko mezu “positiboak” dituen albiste bat ateratu behar da, gure herrialdeari egiten dioten ekarpena handia baita, eta gure herrialdea inbaditzen duten turistek buruzko mezu “negatibo” bat. Horretarako, saio honetako lehen jarduerako taldeak mantenduko dira. Talde bakoitzak albisteak bilatu beharko ditu webguneetan edo sare sozialetan migratzaileei eta turismoari buruz. Migratzaileei buruzko albisteetan hitz negatiboak aurkitzen saiatuko dira, hala nola “inbasioa”, “immigranteen oldea”,

“legez kanpoko” eta “bortitz”. Turismoari buruzko albisteetan, berriz, hitz positiboak bilatuko dira, adibidez “iritsieren errekorra”, “denboraldi berria hasi” eta “aurtengo ekarpen ekonomikoa”. Behin albiste horiek dauzkatenean, haien tituluak aldatuko dituzte (Photoshop erabilia, guraizeak, papera...) eta, hartara, albiste faltsua sortuko da, barregarria bizi garen mundu honetan. Lana gainerako ikaskideekin partekatuko da, eta, nahi izanez gero, baita sare sozialetan ere (7. eranskina).

Amaitzeko, “No te dejes enredar” bideoa proiektatuko da eta haren gainean gogoeta egingo da. CEAR Euskadi batzordeak egindakoa da, eta 7. eranskinean dago.

Materialak: inprimagailua, guraizeak eta itsaskina, edo Interneterako sarbidea duten ordenagailuak.

Denbora: 7. saioa. “Berria” dinamika, 15 minutu. “Artikulu barregarria” dinamika, 25 minutu. “No te dejes enredar” bideoa ikustea, 5 minutu. Gogoeta, 5 minutu. Guztira, 50 minutu.

5. BLOKEA. AMAIERA EGITEKO BLOKEA

8. SAIOA. HAUSNARKETA INTEGRALA, ETA EKITEKO ETA ERALDATZEKO PROPOSAMENA

Azken saio honetan, **ekiteko eta eraldatzeko proposamenen** gainean egingo dugu gogoeta. Pertsona guztiok dugu ekiteko gure gunea (bai bakarka eta bai taldeka ere), mundua aldatu eta bidegabekerien kontra borrokatzeko. Ikasleak beren aukerak ikertzeraz, ekintzak sortzeko irudimena erabiltzeraz eta ekintzetan parte hartzeraz bultzatu nahi ditugu.

Horretarako, **CEAR batzordeak iheslarien eta migratzaileen eskubideei buruz egin izan dituen sentsibilizazio-kanpainen zenbait adibide** emango ditu irakasleak (8. eranskineko 8. jarduera).

Gero, ikasleak taldetan banatuko dira, aurreko saioetan baliatutako kopuru- eta sexu-eskemari jarraituta, eta talde bakoitzak **sentsibilizazio-proiektu bat** egin beharko du, gai berberaren gainean.

Aurrena, taldeek erabaki beharko dute zein gai jorratu, pertsonen salerosketa, kulturartekotasuna, itsas salbamenduko itsasontziak eta abar. Kanpainarako izen bat aukeratuko da eta bai kanpainaren hartzaileak zein izango diren ere (gazteak, politikariak, auzoko bizilagunak, hedabideak, etab.). Taldeek erabakiko dute zer motatako kanpaina egin nahi duten (dantza, antzerkia, kaleko ekintza, desobedientzia zibila, dokumental bat egitea...) eta irudia sortuko dute (GIF, CANVA, POWER POINT, etab.).

Behin lana eginda, gainerako ikaskideekin partekatu ahal izango da eta sare sozialetan kaleratu, baita IPESen eta/edo CEAR batzordearen Twitterren ere.

Unitatea amaitzeko, **unitate didaktikoaren ebaluazioa** egingo da, 8. eranskineko 2. jarduerako galderei jarraituta. Eta Nafarroan iheslarien eta migratzaileen eskubideen alde lan egiten duten erakunde eta talde batzuen informazioa partekatuko dute irakasleak. Gogoan izan denek dutela boluntariotza-arlo bat (CEAR, Gurutze Gorria, SOS Arrazakeria, SEI, Alboan, Munduko Medikua, IRUÑA Harrera Hiria, Carabana, Flor de África, África Unided, etab.).

VIII. EBALUAZIOA

Ebaluazioa modu jarraituan egingo da, unitate didaktikoa landu ahala. Bloke bakoitza amaitzean, ebaluatu egingo dira saioaren antolaketa, taldeak, denbora, ikasleen interesa, jorratutako kontzeptu berrien ulermena eta abar. Hartara, hurrengo jardueretan egokitzapenak egin ahal izango dira, proposatutako xedea eta helburuak lortzeari begira.

Irakasleek funtsean bi teknika erabiliko dituzte: behatzea eta galdeketei ikasleek eman dizkieten erantzunak aztertzea. Prozesu honetan aintzat hartu beharreko adierazleetako batzuk hauek izango dira: ikus-entzunezkoak eta testuak aztertzean ikasleen arreta eta gaitasuna, bakarka egindako esku-hartzeak, talde txikien funtzionamendua eta dinamikak, eta esku-hartzeak eta interakzioak talde handian.

Ebaluazio-irizpideak:

- Iheslari bat eta migratzaile bat bereizten ditu.
- Babesa eskatzeko bide seguru eta legezkorik ez egotearen ondorioen berri badu.
- Beren herrialdeetatik ihes egitean emakumeen espezifikotasunak ezagutzen ditu, baita bidaian eta helmugan ere.
- Migratzaile behartuen eta iheslarien gainean gure gizartean ditugun aurreiritziak eta estereotipoak identifikatzeko gai da.

Unitate didaktikoa amaitzean, interesgarria litzateke ikasleei **ebaluazio labur bat** egiteko eskatzea, 8. eranskineko 2. jardueran jasota dagoena. Zehazki, ikasleei ikasi dutenaren gainean galdetzen zaie, bereziki deigarria egin zaienaren gainean, gustatu zaienaren eta ez zaienaren gainean, zerbaitekin bereziki identifikatuta sentitu diren, beren ideietakoren bat aldatu den, eta, erantzuna baiezkkoa bada, zein.

IX. ERREFERENTZIA

BIBLIOGRAFIKOAK

Echando Raíces, echando de menos. Mujeres inmigrantes en España. III INFORME DE ATENCIÓN PSICOSOCIAL A MUJERES INMIGRANTES DE RED ACOGE (Madrid, 2017)
https://www.redacoge.org/mm/file/Atencio%CC%81n%20Psicosocial%20a%20Mujeres%20Inmigrantes_v05.pdf

Mujeres migrantes como sujetos políticos en el País Valencià: Creando estrategias frente a las violencias. Alianza por la Solidaridad (Valencia, 2018)
<https://www.alianzaporlasolidaridad.org/wp-content/uploads/ALIANZA-INFORME-MUJERES-MIGRANTES-Valencia.pdf>

“Estoy viva”. Cartografías resistencia de mujeres provenientes de Africa Subsahariana”
Itziar Gandariasek egina. CEAR EUSKADI batzordearen webgunean dago

Giza Eskubideen Aldarrikapena
<https://www.un.org/es/universal-declaration-human-rights/>

X. ERANSKINAK

1. ERANSKINA. 1. SAIOA. NOR DA HEMENGOA?

1. ERANSKINA. 1. JARDUERA. "MAPAREN DINAMIKA"

1. **Hasierako galdera:** Nor da hemengoa?

2. **Dinamikaren ondoren galdetu:**

a) Zer ikusten dugu?

b) Zer mugimendu ikusten dira?

c) Zuen ustez, zein arrazoi izan zituzten zuen senitartekoek beste toki batzuetara migratzeko?

d) Nola definitu edo jo dezakegu pertsona bat migratzailatzat edo bertakotzat?

e) Gauza baterako edo besterako zein desberdintze-ezaugarri dauzkagu edo erabiltzen ditugu?

1. ERANSKINA. 2. JARDUERA. "KONPARAZIO HISTORIKOA"

1. Behaketa-dinamikarako argazkiak²²:

ITSASONTZIAK IRISTEA



Lehen argazkia: Aquarius itsasontzia iritsi zenean, 2018an. Bigarrena: 1936 eta 1939 artean, 36ko gerratik Latinoamerikara ihes egin nahi zuten espainiarrak eraman zituen itsasontzietako bat.

MUGAK OINEZ IGAROTZEA



Ezkerreko irudian, soldadu frantses bat espainiar familia bati laguntzen ari zaio muga igarotzen 36ko gerran. Eskuinekoan, familia bat saiatzen ari da oinez iristen Greziatik Europako herrialde batera.

AMA BATEN MAITASUNA



Ezkerreko irudian, Malagako emakume bat bidean eseri da, semearekin, atsedean hartzeko Bartzelonarako bidean. Eskuinekoan, Siriako emakume bat atsedean hartzen ari da alabarekin, Europako iheslari-esparru batean.

TRENBIDEAK...



Trenbide batzuk iheslarien esparru bat dira, Grezian, eta haurrak siriarrak dira. Eskuinekoetan, haurrak espainiar iheslariak dira, 36ko gerratik ihesean, Bilbon.

²² <https://twitter.com/elhuffpost/status/1009400708074962944> helbidetik ateratako argazkien konparatiba.

Argibide gehiago nahi izanez gero, kontsultatu artikulu hau: Cuando los refugiados éramos nosotros. Las fotos del exilio en la Guerra Civil Española que nos recuerdan que los españoles también tuvimos nuestros 'Aquarius'.

Carlota E. Ramírez. 2018ko ekainaren 20a.

36ko gerran iheslariak izan zirenen irudi gehiago daude webgune honetan:

<https://recurrut.eu/es/galeria-imagenes/category/13-ruta-6-caminos-alt-emporda.html>

<https://eacnur.org/es/actualidad/noticias/historias-de-vida/el-exilio-espanol-cuando-fuimos-refugiados-espanoles>

Eta beste lotura honetan, erbestean bizirik iraun zutenen testigantza batzuk daude:

https://cadenaser.com/programa/2015/09/13/a_vivir_que_son_dos_dias/1442128982_568169.html

“Konparazio historikoa” dinamikarako galderak:

a) Nor dira?

b) Zuen ustez, noiz egin dira argazki hauek?

c) Zuen ustez, zergatik edo zertatik ari dira ihes egiten argazkietan ageri direnak?

d) Zuen iritziz, zer-nolako harrera egin zieten iritsi ziren lekuan?

e) Migrazio horien eta egungoen artean desberdintasunik badagoela iruditzen zaizue?

Saio honetan sendotu beharreko ideia giltzarriak:

- a) Migrazioak gizateriaren historiaren zati dira. Berez, ez dira arazoa, aukera positiboa baizik, ez hainbeste (edo ez bakarrik) ekonomikoa, baizik eta bai soziala ere.
- b) Ikasleek jakitun izan behar dute mundua gure ikuspegitik eta gure ingurunetik pentsatzen dugula (etnozentrismoa).
- c) Hainbat arrazoi daude migratzeko, eta denak dira zilegiak.
- d) Edonori gerta dakiok bere etxetik ihes egin behar izatea, denoi. Izan ere, askok atera behar izan zuten Espainiatik diktadura izan zen bitartean, ariketa praktikoan ikusi den moduan²³.

²³ Argibide gehiagotarako:

<https://eacnur.org/es/actualidad/noticias/historias-de-vida/el-exilio-espanol-cuando-fuimos-refugiados-espanoles>.² Ikusi jarduerak garatzeko eranskinak. 1. SAIOA. Behaketa-dinamikarako argazkiak: Konparazio historikoa.

2. ERANSKINA. 2. SAIOA. ZERGATIK MIGRATZEN DUGU?

2. ERANSKINA. 1. JARDUERA. PERTSONAK BEREN ETXEAK UZTERA BULTZATZEN DITUZTEN ARRAZOIEI BURUZKO GALDERAK

- a) Zuen ustez, zergatik migratzen dute pertsonek?
- b) Zein izaten dira migrazio horien kausak?

2. ERANSKINA. 2. JARDUERA. BIDEOA IKUSTEA: “MIGRAR NO ES DELITO”, EUSKADIKO GGKE-EN KOORDINAKUNDEARENA

<https://vimeo.com/157126381>

Bideoa ikusi eta gero, irakasleak egin beharreko galderak:

- a) Bideoan zer migrazio-mota ikusten ditugu?
- b) Nola sailka ditzakegu?
- c) Zein dira migrazio-mota bakoitzaren kausak?
- d) Berdinak dira ala desberdinak?
- e) Zein bidaia-baldintza ditu migrazio-mota bakoitzak?
- f) Zure ustez, zergatik daude diferentzia horiek?

Saio honetan sendotu beharreko ideia giltzarriak:

- a) Hainbat arrazoi daude migratzeko, eta denak dira zilegiak. Pertsona guztiok dugu migratzeko eskubidea. Pertsonak migratzera bultzatzen dituzten kausetako batzuk nazioarteko babesa eskatzeko arrazoia izan daitezke.
- b) Giza eskubideak migratzaile guztien kasuan errespetatu behar dira, migratzeko dituzten kausak gorabehera eta asilo-eskubidea aitortzen zaien edo ez. Migratzaile guztiak duintasunez eta errespetuz tratatu behar dira.
- c) Nazioarteko babesa eskatzeko, hauek frogatu behar dira:
 - i. Pertsona batentzat arriskua dakarren jazarpen-agente bat dagoela.
 - ii. Jatorrizko herrialdeak ezin diola babesa eman pertsonari, eta, horrenbestez, beste herrialde baten babesa beharrezkoa eta nahitaezkoa dela.
- d) Migratzaileei eta iheslariei babesa eta arreta ematea, kontu humanitarioa eta elkartasunezkoa ez ezik, eskubideen eta justiziaren kontua ere bada; izan ere, legeria desberdinetan jasota baitago (naziokoetan eta nazioartekoetan).

3. ERANSKINA. 3. SAIOA. BIDAIA BEHARTUAK

3. ERANSKINA. 1. JARDUERA. “BIDAIA-TXARTELAK: ZERGATIK DAUDE DIFERENTZIA HAUEK?”

A txartela:

Nor zareten: unibertsitateko lagun-talde bat zarete. Udako oporretarako, esperientzia dibertigarria eta exotikoa bizi nahi duzue.

Nora joango zareten: Yankari parke nazionalera, Nigerian.

Zer egin: ibilbideak zenbat balio duen ikertzea; bisen eta txartelen kostua. Zein ibilbide egingo duzuen eta bidaiarako zein plan duzuen eztabaidatu.

B txartela:

Nor zareten: Nigeriako hiriburuko, Abujako, lagun-talde bat zarete. Boko Haram taldearen mehatxu bat jaso duzue: taldean sartu behar duzue edo hil egingo zaituztete.

Nora joango zareten: Iruñean bizi den lagun baten ondora ihes egitea erabaki duzue.

Zer egin: Espainian bisa bat lortzeko baldintzak ikertu. Bidaiak zenbat balio duen ikertu; bisen eta txartelen kostua. Zein ibilbide izango eta egingo duzuen eztabaidatu, mugak ezin badituzue legez igaro.

3. ERANSKINA. 2. JARDUERA. UNICEFEN “EL VIAJE DE TU VIDA” BIDEOA IKUSTEA
<https://www.bing.com/videos/search?q=elviaje+de+tuvida+unicef&view=detail&mid=E1A0531A60DB4DC93384E1A0531A60DB4DC93384&FORM=VIRE>

Bideoa ikusi eta gero egin beharreko galderak:

- a) Zuen ustez, zergatik bidaiatu dezakegu guk arriskurik gabe eta beste familia batzuek milaka kilometro egin behar dituzte oinez edo itsasoa gurutzatu behar dute seguruak ez diren txalupa edo itsasontzietan horrek berekin dakarren arriskuarekin?
- b) Zuen ustez, zein dira beren jatorrizko herrialdetik ihes egiten duten pertsonentzat mugak ixtearen ondorioak?
- c) Ba al da desberdin jokatzeko duen herrialderik ala denek berdina jokatzeko dute?

3. ERANSKINA. 3. JARDUERA. CEAR BATZORDEAREN “SIN VÍAS LEGALES, DINERO A RAUDALES: EL GRAN NEGOCIO A COSTA DE LAS PERSONAS REFUGIADAS” BIDEOA IKUSTEA

<https://www.youtube.com/watch?v=mHwhc3ZUqxw>

Bideoa ikusi eta gero irakasleak egin beharreko galderak:

- a) Zer esan nahi du “*asiloa eskatzeko bide seguruak*” esaldiak?
- b) Nola konpondu ahal izango genuke arazo hau eta jendeak ez jo behar izatea mafietara beren herrialdeetatik ihes egin ahal izateko?

Saio honetan sendotu beharreko ideia giltzarriak:

- a) Migrazio behartuetan bide segururik ez egoteak arriskua handitzen du bidaiari, eta, gainera, ez du saihesten beren herrialdeetatik ihes egiten duten pertsonen ihes egiten jarraitzea.
- b) Horretarako, alternatibak bilatu behar dituzte. Alternatiba horietako gehienak mafiei dirua ordaintzea dira, herrialde seguru batera iristen laguntzeagatik.
- c) Ezin ditugu migrazioak eta beren tratamendu politikoa eta mediatikoa ulertu, migrazio horiek logika kapitalista eta neoliberalaren barnean daudela ulertu gabe. Horrenbestez, izugarritzko negozioa dira.

4. ERANSKINA. 4. SAIOA. BABESA GENEROKO ARRAZOIENGATIK

4. ERANSKINA. 2. JARDUERA. “REFUGIO POR GÉNERO” BIDEOA IKUSTEA, CEAR BATZORDEARENA

(<https://www.youtube.com/watch?v=RIgwhFJK2Vw&t=90s>)

Bideoa ikusi eta gero irakasleak egin beharreko galderak:

- a) Zer gertatu da istorioetako bakoitzean?
- b) Zergatik gertatzen dira egoera horiek?
- c) Zergatik egiten dute ihes?
- d) Zuen ustez, zer gertatu behar da halakoak gertatzeari uzteko?
- e) Ezagutzen al duzue zentzu horretan egin den jardunbide egokiren bat? (beharrezkoa bada, azaldu jardunbide egokiaren kontzeptua).

Saio honetan sendotu beharreko ideia giltzarriak:

- a) Generoko arrazoiengatiko jazarpena gertatzen da eskubideen urraketek pertsona bati bere generoko identitatearen ondorioz (emakumea, gizona, trans pertsona edo beste batzuk) ematen zaion rolaekin zerikusia dutenean edo bere sexu-orientazioaren edo lehentasunen ondorioz ematen zaionarekin.
- b) Generoko arrazoiengatiko jazarpena ingurune pribatuan eta publikoan egin daiteke ageriko, eta estatuko agenteek eta ez direnek gauzatu ahal dute.
- c) Beren jatorrizko herrialdeetan emakumeek pairatzen dituzten jazarpen- eta indarkeria-era berariazkoetako batzuk hauek dira: genitalen mutilazioa eta ugalketari buruz inposatutako erregulazioarekin lotutako indarkeriak (antzutze behartua, beren nahiaren kontra eragindako abortua); ohore-delituekin lotutako indarkeriak (harrika hiltzea, ezkontza behartua); generoko indarkeria bikote-harremanen barnean (psikologikoa, fisikoa, ekonomikoa eta ondarearena, soziala eta abar) edo haietatik kanpo, familian edo komunitatean (sexu-abusuak, bortxaketa zentzagarriak, feminizidioa edo alargunak erretzea); eta bai emakumeen gorputzari eta merkatuari lotutako indarkeriak ere, besteak beste, pertsonen salerosketa sexu-esplotazioko helburuekin (informazio gehiago edukitzeko, esparru kontzeptuala kontsultatu ahal da, 16. orrialdean).
- d) Halaber, garrantzitsua da ikasleen gogoeta-prozesua laguntzea, emakumeek gure gizarteetan duten eginkizun bikoitzari dagokionez, dagoen generoko gizarte-egituraren barnean: alde batetik, egiturazko berdintasunik ezen eraginaren ondorioz, emakumeak kalteberatasun handiagoko egoeran eta indarkeria ugari eta desberdinen mende daude; baina, beste alde batetik, eta aldi berean, agente aktibo garrantzitsuak dira, aurre egiteko eta bizirik irauteko estrategia garrantzitsuak garatzen dituztenak. Horrenbestez, gure gizartean eta beste batzuetan emakumeen irakurketa “biktimista” egitea saihestu behar da.

5. ERANSKINA. 5. SAIOA. JATORRIKO, BIDAIAKO ETA HELMUGAKO TESTIGANTZAK

5. ERANSKINA. 1. JARDUERA. TESTIGANTZAK: BINTA Y LA GRAN FRONTERA (BINTA Y LA GRAN FRONTERA LANAREN LABURPENA, LUCÍA MUÑOZEN KRONIKA PIKARA MAGAZINERAKO)

<https://www.pikaramagazine.com> › 2017/08 › binta-y-la-gran-frontera)

1. JATORRIA

Binta urduria da eta urduri dago, askatasunerako gogo bizia sentitzen du. Berak aukeratu ez duen norbaitekin ezkondu behar duela jakin berri du. Bera baino askoz ere zaharragoa den gizon bat da, bere familiaren buruaren rola hartu zuena, Bintaren aitak bera, bere hiru ahizpak eta ama utzi zituenean. Bintak esaten du etxe matriarkal baten sabaiplean hazi dela, baina “biziki” patriarkala den sistema bat da. Sabaiepe horretan ez dakite, ordea, Bintari emakumeak gustatzen zaizkiola. Ez da kontatzera ausartzen, behin baino gehiagotan entzun baititu ama eta bizilaguna esaten “beraiek seme edo alaba homosexuala balute, beren eskuekin hilko luketela”. Egun batean, Bintaren lehengusina negarrez iritsi zen etxera, ezkontzera behartu zuten gizonak bitan bortxatu zuelako eta, poliziakideen aurrean etsita salatzean, bere lepotik barre egin zutelako eta gero hau esan ziotelako: “Zoaz etxera senarrarekin, emakume moduan konplitzera”. Bintak ezin zuen gehiago: “Gizon bakar batek ere ez zuen bere patua erabakiko”.

Idea desberdinak izateak, pertsona moduan garatzeko gogoek, bere iritzia izatekoek eta independenteak izatekoek etxetik ihes egitera bultzatu zuten Binta. “Gauetz atera nintzen eta autobusez joan nintzen Maliraino. Gero autoz Nigerren, eta Saharako basamortua zeharkatu genuen Aljeriaraino. Bidean, jende asko ikusi dut hiltzen, zeukaten guztia galtzen; jakina, garrantzitsuena, bizia. Baina gauzak aldatzeko hartu ditudan erabakiek gosea eta egarria menderatu eta gainditu dituzte”. Bintarentzat gauzak aldatzea askatasunez adierazi ahal izatea da: “Gizon baten ondoko bizimodua errespetagarriagoa eta egonkorragoa dela gizarteak sinestarazten digun ideia aldatu behar da. Ikasi behar dugu bakarrik bizi den emakume bat ez dela puta edo ez duela bizimodu txarra. Gure erabakiak har ditzakegun izakiak gara, inork gu epaitu gabe”.

2. BIDAIA

Aljeriatik Marokoraino Poliziari iskin egin behar izan zion, baina baita mafiei ere: “Ez dago mafia-sare bat; pertsonak dira, egoera bat aprobetxatzen dutenak beraiek ere bizirik irauteko. Pasatzen garenean beste alde batera begiratzeko poliziakideei ordaintzen dieten gizonak dira, jeneralean bertakoak”. Dirurik gabe gelditu zen eta zortzi hilabete eman zituen basoan bizitzen. “Tangerko kaleetan eskean aritzen iraun genuen. Basoan, zereginak komunitatean antolatzen genituen, baina ni ez nintzen Marokoraino joan era horretan bizitzeko, bizia arriskuan jartzen ari bainintzen eskubideak izateagatik eta bai emakume gisa edukitzeagatik ere. Maroko ez da eskubideen herrialdea. Ikusi dudak okerrekoa da”. Marokoko Gobernuak sarekadak egiten ditu Saharaz hegoaldeko Afrikako pertsonak bakarrik bizi diren kanpaleku horietan, harrapatzen duten guztia erre eta suntsitzen dute, eta horrek behartzen ditu pertsona horiek pateretara igotzera edo hesiak saltatzera aurreikusitakoa baino lehen. Ez dago “boladarik” edo “erakartze efekturik”, Espainiako Gobernuko Barne Ministerioak eta zenbait hedabidek hala adierazten badute ere.

Pateran eta salbamendu-jakarik gabe

Hegoaldeko Mugak Afrika kontinentearen iparraldea hartzen du, barne hartuta Ceuta eta Melilla, Alborango itsasoa, Mediterraneo itsasoa eta Gibraltarko itsasarte, Andaluziako, Murtziako eta Kanarietako itsasertzak bustitzen dituztenak. Migrazio-ibilbideak aldatu egiten dira, baina ez dira desagertzen, eta gero eta arriskutsuagoak dira, bide segururik ez dagoelako eta muga-politiketan jartzen diren oztopoengatik. Paterak ez dira jada zurezko *cayuco* ontziak, baizik eta plastikozko eta jostailuzko baltsak, haietako batzuk motorrik gabeak. Hamar lagun baino sartzen ez diren tokian 60k ere nabigatzen dute. Emakumeak, haurtxoak eta gizonak. Igotzeak prezio bat du, eta ez du zertan merkea izan, gainera. Bintak “ez zuen sosik ere”, hitzez hitz, eta, ondorioz, plaza bat hitzartu zuen, bere burua prostituitzearen truke. “Ez nago batere harro egindakoaz, baina ez nuen beste aukerarik nire ametsa lortu nahi banuen, basoan mirari baten zain gelditu orde”, azaldu du. Erabaki erabat zilegia, Bintak gero bere bizia arriskuan jartzeko itsasoan, baina zerbait iraingarria eta izugarria emakumeentzat. Forma ez da kontua, erabakia bizitzea edo hiltzea denean. Bortxaketak eta xantaiak mugetan emakumeek pairatu behar izaten dituzten irain nagusietako batzuk dira, eta han “gorputza gauza bihurtzea” mantenu eta trukerako txanpon bihurtzen da.

Binta arratsaldeko zortzietan atera zen kanpalekutik eta ez zen paterara igo goizeko zazpiak arte. “Korrika jaitsi ginen basotik, izugarrizko beldurra nuela, baina helburua burutik kendu gabe. Paterara 14 gizon eta ni heldu ginen, eta ni nintzen salbamendu-jakarik eta bularrean pneumatikorik ez zeraman bakarra, zerbait gertatzen bazen erabiltzeko. Esan ziguten zuzen joanda Tarifara iritsiko ginela eta beste alderantz Ceuta zegoela. Orain barre egin dezaket, baina imajinatu gure aurpegia une horretan, denok itsasoa inoiz ikusi gabeak baikinena”.

Nabigatzen orduak eman eta gero, pateran ura sartzen hasi zen. Une horretan, Espainiako Guardia Zibilarekin topatu ziren (...), “Ceutara eraman gintuen, Etorkinak Behin-behinean Hartzeko Zentrora (CETI), eta han lau hilabete eman nituen. Han, mundu guztia kexaka aritzen da, baina ni denbora aprobeztatzen saiatu nintzen, ikastaroak eta jarduerak eginez. Arratsaldero joaten nintzen Elin elkarteraino, espainiera ikasteko”, azaldu du.

(...)

Bintaren kemen izugarriak, adoreak, ausardiak eta baikortasunak ekarri du laster aurkitzea bere tokia. Noranahi doala ere ezaguna eta maitatua da. Bintak asiloa eskatu zuen, baina nazioarteko babesaren ebazpena ematea luzatzen ari da, eta, bien bitartean, Hegoaldeko Mugatik bizirik atera den emakume hau Espainian hiritar moduan bere eskubideak mugatzen dituen txartel gorri bati gogor helduta dabil. “Suposatu behar da sei hilabeteren buruan zerbait esan beharko zidatela, baina oraingoz gehiago luzatzen ari da. Ezin naute deportatu, baina ezin dut Espainiatik kanpo bidaiatu eta ezin dut lanik egin; izan ere, lan egiteko aukera asiloa eskatzen denetik sei hilabetera lor baitaiteke, eta, orain ahal izango nukeenean, inork ez du kontratatu nahi ziurgabetasun-egoeran dagoen norbait”.

Bintak ezkontza behartu batetik ihes egin zuen, eta horregatik eskatu zuen babesa Espainian. “Nik ez dut politikaz ulertzen, ezta mugez ere, baina badakit zer den bat, zer diren bi, hiru eta muga asko. Bizi eta sentitu izan ditut. Legeak gizonek eginda daude, eta mugak zer diren ez dakiten gizonek, gainera. Horregatik iruditzen zait zaila dela nazioarteko babesa lortzea, nire arrazoia generokoa baita, eta klaseen edo mailen sistema batean ez da ez baloratzen ez aitortzen emakumeen egoera. Ez da zure bizia amaitzen duen gerra-arrazoi bat, baina emakumeak pixkana hiltzen gara, hilzorian biziz, ezkontzera behartzen gaituztenean, genitalen mutilazioa egiten digutenean, sexualki esplotatzen gaituztenean, pentsatzen ere uzten ez digutenean. Hori ere indarkeria da, eta hil edo biziko kontua da”. Espainiako egungo Asilo Legeak, 2009an onartu zenak, generoko edo sexu-orientazioko arrazoiengatik jazarpenera asilorako kausa moduan

jasotzen du, baina interpretatzen du “ezin dela izan jazarpen baten jatorria bera bakarrik”, baizik eta herrialdearen inguruabarren mende dagoela. Ondorioz, bizirik atera diren pertsona hauentzat oso zaila da batzuetan frogatzea eta eskatzen zaizkien froga “sendoak” edukitzea. (...)

Bintak badaki helburu hartzen duena lor dezakeela. Bere hurrengo erronka kazetaria izatea da, eta irrikatuena, bere herrialdera itzultzea, beti izan den emakumea izanda, baina orain ametsak beteta eta bere sexualitatea aurretik duela. Bizia arriskuan jarri zuen eta berriro egingo luke, baina jakinik Europan ez dagoela Eldorado alegiazko hiria edo eskualdea, urrez betea, baizik eta bere herrialdearen barnean askatasuna lortzean dagoela, bere herriaren ondoan. Ez dio inori gomendatzen bidaia hau, ezta bere etsairik okerrenari ere. Ez du gorroto familia. Bintak askatasunez hitz egitea eta emakume askoren ahotsa izatea lortzeaz gain, noranahi doala ere mugak eta harresiak suntsitzea lortzen du.

(Pikara aldizkariko “Binta y la Gran Frontera” artikuluaaren laburpena).

Testigantzak irakurri eta gero irakasleak egin beharreko galderak:

- a) Zerk harritu zaituzte eta piztu du zuen arreta?
- b) Zer ikasi duzue jarduera honekin?

Saio honetan sendotu beharreko ideia giltzarriak:

- a) Emakume migratzaile behartuek eta ez behartuek pairatutako berariazko indarkeriak ulertzea, eta bai kalteberatasun gehituko faktoreak ere, emakume migratzaile izateagatik *bidaian*.
- b) Bizi izandako indarkeria horiek gainditzeko edo haien aurka borrokatzeko emakumeek dituzten estrategiak eta erresilientzia ikusgai egitea.
- c) Ikusgai egitea baliabideak eta aurretiazko esperientziak dituzten emakumeak direla, bizirik irauteko mekanismoak eraikitzeko aukera ematen dietenak. Gainera, agentzia dute arrisku-egoerak ekiditeko eta egoera bakoitzerako estrategia egokienak garatzeko.
- d) Indarkeria *jatorrian* eta *bidaian* bizi behar izaten dute, eta bai behin Espainiara iritsi eta *bertan kokatzen* direnean ere.
- e) Beren migrazio-ibilbidean emakumeek pairatutako indarkeriak, gainera, beste indarkeria batzuekin gurutzatzen dira, adibidez, bikotekoarekin edo indarkeria instituzional eta arrazistarekin.

6. ERANSKINA. 6. SAIOA. AMILDEGI-LERROA: NON KOKATZEN GARA?

6. ERANSKINA. 1. JARDUERA. "AMILDEGI-LERROAREN DINAMIKA"

Jarraian, ikasle bakoitzari izendatuko zaizkion erreferentziazko pertsonaien ezaugarriak daude zehaztuta, etiketa itsasgarrien bidez antzeztuko dituztenak. Pertsonaia bakoitza inprimatu eta moztea gomendatzen da, eskura izan dezaten eta behar duten guztietan kontsultatzeko aukera izan dezaten.

Gogoan izan ikasle guztiek ez dutela izango pertsonaia bat izendatuta. Hartara, izendatuta ez dutenek beren egoeraren arabera galderei erantzuten eta tokian kokatzen parte hartuko dute.

1. LUISASA: Dominikar Errepublikako emakumea, 20 urtekoa. Adineko emakume bat zaintzen lan egiten du, lan egiteko baimena dauka eta aldi baterako bizileku-txartela.
2. MUSTAFA: 19 urteko mutil gaztea, marokoarra. Duela 2 hilabete iritsi zen Espainiara, kamioi baten azpiko aldean. Bere administrazio-egoera legez kontrakoa da.
3. IVANNE: jatorriz Nigeriakoa den emakumea, 24 urtekoa. Bere administrazio-egoera legez kontrakoa da. Pertsonen salerosketan aritzen den sare baten biktima da: salatzen badu edo ihes egiten badu, familiari kalte egingo diola mehatxatzen du sareak.
4. AMADOU: Senegalgo gizona, 41 urtekoa. Aldi baterako lan-baimena du. Bere enpresak ez du errespetatzen lan-hitzarmena.
5. MARIA: jatorriz Kolonbiakoa den emakumea, 55 urtekoa. Aldi baterako lan-baimena du. Lanik gabe darama urte bat.
6. RICARDO: Argentinako mutil gaztea, 30 urtekoa. Sei urte daramatza Nafarroan bizitzen. Legez kontrako egoeran dago, ezin duelako aldi baterako baimena berritu. Identifikatu eta Alucheko (Madril) Atzeritarrentzako Zentro Itxira bidali dute (CIE).
7. FATIMA: 17 urteko neska gaztea, marokoarren alaba eta Nafarroan jaioa. Hijab buruzapia erabiltzen du, eta Batxilergoko ikasketak amaitu ditu.
8. MOUSSA: 17 urteko mutil gaztea, senegaldarren semea eta Nafarroan jaioa. Batxilergoko ikasketak amaitu ditu.
9. CARMEN: emakume bilbotarra, 40 urtekoa. Gaixotasun mental larria du, eta iraupen luzeko langabea da.

10. JOSE: 58 urteko gizon iruindarra. Gurpildun aulkian dago duela zazpi urtetik, laneko istripu batengatik.
11. ANGEL: Cadizko gizona, 31 urtekoa. Homosexuala da, eta eraikuntzan egiten du lan.
12. MARTA: 42 urteko emakume iruindarra. Prostituta da eta 3 seme-alaba ditu.
13. ARAN: pertsona transexuala, 20 urtekoa eta donostiarra. Elektrizista edo argiketari ikasketak ditu, eta lan bila dabil duela zortzi hilabetetik.
14. JOSEPH: Kamerungoa den mutila, 25 urtekoa. Lehen mailako futbol-jokalari da Madrilén.
15. LOLA: 53 urteko emakume ijitoa, Tuterakoa. Autonomo aritzen da bere lore-dendan.

Behin etiketa itsasgarriak banatu eta antzeztu beharreko pertsonak izendatu zaizkienean, irakasleak galdera hauek egingo dizkie:

- a) Zure ustez, zure pertsonaia non kokatuko da bere egoera ekonomikoaren arabera?
- b) Eta bere lan-egoeraren arabera?
- c) Eta bere babes-sareen arabera (sare sozialak/familiakoak)?
- d) Eta bere sexuaren eta generoaren arabera?
- e) Eta bere jatorriaren/kulturaren/etniaren arabera?
- f) Eta bere egoera fisikoaren/psikikoaren arabera?
- g) Eta bere sexu-orientazioaren arabera?
- h) Eta bere egoera juridikoaren arabera?

Izendatutako etiketak dituzten pertsonen irakasleak egin beharreko berariazko galderak:

- a) Zein da zure egoera?
- b) Zergatik kokatu zara toki horretan?
- c) Zergatik uste dute gainerako taldekideek pertsona hori hor kokatu dela?
- d) Inor tokiz aldatu bada, zergatik egin duzu/duzue?

Behin etiketa itsasgarria kenduta eta lerroan beren burua antzezten kokatzen direnean egin beharreko galderak:

- a) Nola kokatzen zara/zarete?
- b) Alde berebean kokatu zareten pertsona guztiok antzeko baldintzetan bizi zaretela iruditzen zaizue?

Jarduera amaitzeko galdera:

- a) Zein egiturazko faktore ikusi ditugu dinamikan, pertsonen artean desberdintasunik ez sozialak/aukeren berdintasunik ezak sortzen dituztenak? Eta emakumeen eta gizonen artean?

Saio honetan sendotu beharreko ideia giltzarriak:

- a) Migratzaileen artean berdintasunik ez sozialak eta aukeren berdintasunik ezak sortzen dituzten egiturazko faktoreak daude, eta haien artean hauek nabarmentzen dira: egoera sozioekonomikoa, prestakuntzakoa, idiomatikoa eta lanekoa; egoera juridiko-administratiboa, osasun-egoera; egoera kulturala (jatorria, erlijioa); egoera pertsonala (adina, familia-unitatearen osaera...); sexu-egoera, generokoa eta sexu-orientazioarena; egoera psikosoziala (babes-sareak, egoera psikologikoa).
- b) Egiturazko faktore horiek eragina dute bizi-aukeretan. Hartara, aukera gehiago dituzten pertsonak/taldeak daude, eta, horrenbestez, botere handiagoa eta baliabide gehiago dituztenak erabakiak hartzeko, eta aukera gutxiago dituzten pertsonak/taldeak, hau da, egiturazko desabantaila-egoeran daudenak.
- c) Inklusio-prozesua ez da bakarra, lineala eta aldaezina, baizik eta hartzailea den gizartearen egiturazko faktoreek eta bai jatorrizko gizartearen faktoreek baldintzatzen dute; eta bai pertsona edo familia bakoitzaren berariazko faktoreek ere. Faktore horiek kulturalak, egoerazkoak eta pertsonalak dira.
- d) Ez dago migratzailearen “profil” bat. Migrazioen analisia konplexua da, eta errealitateak askotarikoak dira, dinamikan ikusi ahal izan den moduan.

7. ERANSKINA. 7. SAIOA. HEDABIDEAK ETA MIGRAZIO BEHARTUAK

7. ERANSKINA. 2. JARDUERA. "ARTIKULU BARREGARRIA"

Adibide moduan erabil daitezkeen 7 albiste daude, sarean ez badira aurkitzen balia daitezkeenak.

I. ALBISTEA²⁴

El Gobierno se compromete aligerar a Madrid de la presión migratoria

BELÉN SARRIÁ 09.07.2019



- El Ayuntamiento de Madrid y el Gobierno en funciones acuerdan medidas a medio y largo plazo a un problema que recocen "urgente".



El Gobierno en funciones y el Ayuntamiento de Madrid **no han encontrado ninguna solución a corto plazo** para el problema urgente de la acumulación de refugiados en la capital que, además, se agrava en esta época estival.

Sin embargo a lo largo de la hora y media que ha durado la reunión entre el secretario general de Inmigración y Emigración, Agustín Torres, y el delegado de Familias, Igualdad y Bienestar Social, Pepe Anierte han llegado a un acuerdo para el medio y el largo plazo: **un reparto de responsabilidades que aligeran la presión migratoria que vive la capital española.**

²⁴ <https://www.20minutos.es/noticia/3697908/0/gobierno-compromete-aligerar-marid-presion-migratoria/>

Descoordinación policial ante la avalancha de inmigrantes a las costas españolas



El Gobierno en funciones y el Ayuntamiento de Madrid **no han encontrado ninguna solución a corto plazo** para el problema urgente de la acumulación de refugiados en la capital que, además, se agrava en esta época estival.

Sin embargo a lo largo de la hora y media que ha durado la reunión entre el secretario general de Inmigración y Emigración, Agustín Torres, y el delegado de Familias, Igualdad y Bienestar Social, Pepe Aniorte han llegado a un acuerdo para el medio y el largo plazo: **un reparto de responsabilidades que aligeran la presión migratoria que vive la capital española.**

A medio plazo se han planteado buscar recursos limítrofes a la ciudad de Madrid para **"complementar la red actual de recursos existentes para esta población"**. Entre los asuntos para abordar más adelante está el de **"buscar un nuevo modelo de atención involucrando a las comunidades autónomas** aparte de los ayuntamientos referentes en España", ha explicado esta mañana el

25 https://www.elplural.com/politica/descoordinacion-policial-avalancha-inmigrantes-estrecho-gibraltar_204357102

La avalancha de inmigrantes en pateras duplica en un fin de semana los 629 acogidos del 'Aquarius'



Más de 700 periodistas se acreditaron en Valencia para asistir a la llegada y desembarco de los 629 migrantes a los que el Gobierno de Pedro Sánchez decidió acoger ante las negativas de Italia y Malta. Un gesto que ha removido conciencias y que tendrá un peso significativo en la próxima reunión del Consejo de Europa.

Sin embargo, los gestos en el Mediterráneo no han conseguido frenar la oleada masiva de pateras que, amparadas por el buen tiempo de este fin de semana, han llevado a las costas andaluzas y canarias a 1.290 inmigrantes, sin contar los cuatro fallecidos y los 63 desaparecidos que aún busca Salvamento Marítimo.

²⁶ https://www.elespanol.com/espana/20180618/avalancha-inmigrantes-pateras-duplica-semana-acogidos-aquarius/315719002_0.html

Un millón de inmigrantes, la mayoría subsaharianos, se dirigen hacia Marruecos para entrar en España



Fuentes marroquíes han alertado de una oleada masiva de pateras en los próximos meses. Los servicios de información del país vecino han detectado un movimiento migratorio de Libia a Marruecos a través de

Argelia de nada menos que un millón de personas, la mayoría inmigrantes subsaharianos.

La vía de Libia hacia Italia ha quedado cerrada con las medidas del nuevo gobierno italiano, que incluso ha prohibido socorrer a quienes embarquen.

El Gobierno de Sánchez, por su parte, carece de cualquier plan para frenar estas avalanchas, lo que está contribuyendo a activar el «efecto llamada». El apoyo a la llegada masiva de ilegales de los socios parlamentarios del PSOE alimentan el problema.

El PP y Ciudadanos, entre tanto, se mantienen silentes y aparentemente ajenos al desafío. De hecho, la inmigración ilegal no genera debate alguno en el Congreso. Los parlamentarios viven de espaldas a un problema que preocupa cada vez más a los españoles y que sin duda tendrá gravísimas consecuencias para las capas más humildes.

²⁷ <http://www.alertadigital.com/2018/06/22/un-millon-de-inmigrantes-se-dirigen-hacia-marruecos-para-entrar-en-espana/>

España bate su récord de turistas extranjeros por sexto año seguido

Un total de 82,8 millones visitaron España en 2018, un millón más que en 2017



Turistas en el centro de Sevilla. PACO PUENTES

Por sexto año consecutivo, España recibió en 2018 un número récord de turistas extranjeros. El año pasado se cerró finalmente con 82,77 millones, un 1,1% más que el año anterior, según las [cifras que ha publicado este viernes el INE](#). Aunque durante el año las cifras habían arrojado

leves crecimientos e incluso algunos descensos, por la emergencia de otros destinos competidores y ciertas condiciones meteorológicas, el fuerte impulso del último trimestre, especialmente en diciembre, ha colocado de nuevo el número de llegadas en cifras nunca vistas. Mejor noticia dio el gasto de los turistas, que aumentó al triple de ritmo que las llegadas. Los visitantes gastaron 89.856 millones de euros en visitar España, un 3,3% más que en 2017. Es el octavo récord de gasto consecutivo.

IN ENGLISH

Spain sets new foreign tourist arrival record for sixth consecutive year

Nuevo récord: En 2018 llegaron 82,6 millones de turistas a España

Por Redacción TH - 16 enero, 2019



España ha cerrado 2018 con un nuevo récord de 82,6 millones de turistas internacionales, un 0,9% más respecto a 2017, según ha informado la ministra de Industria, Comercio y Turismo, Reyes Maroto, tal y como recoge la Agencia EFE.

Esta estimación para el cierre de 2018 supera la cifra alcanzada durante 2017, **que fue de 81,8 millones de turistas** internacionales en España y supone un incremento del 43,7% respecto a 2012.

La ministra ha destacado en rueda de prensa que este crecimiento en la afluencia de visitantes va acompañado por «un fuerte incremento» del **gasto turístico** que realizan en sus viajes a España y que se sitúa en torno a 90.000 millones de euros (89.678 millones de euros), un 3,1% más que en 2017.

Según Maroto, se trata de unos resultados «muy positivos» que confirman la robustez del sector turístico del país y nos permiten mantenernos como uno de los principales destinos mundiales «a la vez que nos anima a seguir trabajando para la consolidación de los flujos y para potenciar un turismo de valor añadido».

²⁹ <https://www.tecnohotelnews.com/2019/01/record-de-turistas-2018/.html>

Más turismo y más dinero: España recibe 21,4 millones de turistas hasta abril

Hasta abril, el gasto de los turistas internacionales en sus viajes a España alcanzó los 22.489 millones, con un incremento del 5,1%



Turistas en las playas de Benidorm. EFE

España recibió **21,4 millones de turistas internacionales** en los cuatro primeros meses del año, **un 4,4% más** que en el mismo periodo de 2018, según los datos provisionales de la Encuesta de Movimientos Turísticos en Frontera (Frontur) elaborada por el Instituto Nacional de Estadística (INE).

Hasta abril, el gasto de los turistas internacionales en sus viajes a España alcanzó los **22.489 millones de euros**, con un incremento del 5,1% respecto al mismo periodo de 2018, de acuerdo con la Encuesta de Gasto Turístico (Egatur) publicada también este lunes por Estadística.

³⁰ <https://www.elmundo.es/economia/2019/06/03/5cf4cc9121efa027368b45f1.html>

7. ERANSKINA. 3. JARDUERA. CEAR EUSKADI BATZORDEAREN “NO TE DEJES ENREDAR” BIDEOA IKUSTEA

<https://www.youtube.com/watch?v=5Zo30Q10rjE>

8. ERANSKINA. 8. SAIOA. AMAIERA ETA EBALUAZIOA

8. ERANSKINA. 1. JARDUERA. SENTSIBILIZAZIO-KANPAINAK

Iheslarien eta migratzaileen eskubideei buruzko sentsibilizazio-kanpainen adibideak

CEAR batzordeak eginak eta “Comisión Española de Ayuda a la persona refugiada” (Iheslariak Laguntzeko Espainiako Batzordea) izenburua duen YouTubeko kanaletik atereak:

<https://www.youtube.com/channel/UCNhoiQgfZsmzkq85LdCQ5Xw>.

Haien barnean, arlo eta izenburu hauek daude:

- a) Ihes egitera behartzen duten kausekin lotutako salaketa-ekintzak:
 - 1. “Maras, la Guerra no encontrada llega a Navarra”
 - 2. “Huir por Ser, Sentir, Amar”: LGTB iheslariei buruzko datuak eta istorioak
- b) Bidaiarekin lotutako salaketa-ekintzak:
 - 1. “No entran”
 - 2. “25 Titanic en el Mediterráneo durante el Siglo XXI”
 - 3. “Más de 70.000 personas refugiadas atrapadas en Grecia”
 - 4. “Sin vías legales dinero a raudales”(unitate didaktiko honetan ikusteko jaso)
 - 5. “Quien da menos, la subasta de personas refugiadas de le UE”
 - 6. “El otro sonido del mar”.
- c) Inklusio-prozesuarekin eta kulturarteko bizikidetzarekin lotutako salaketa-ekintzak: “No te dejes enredar”.

Kanpainen beste adibide batzuk:

- a) “Mételos/as en tu casa” kanpaina:
<https://www.cear.es/sections-post/metelos-en-tu-casa/>
- b) “Acoge un plato” kanpaina:
<https://www.acogeunplato.org/>

8. ERANSKINA. 2. JARDUERA. EBALUAZIO-INKESTA

Unitate didaktikoko ebaluaziorako galderak:

a) Zer ikasi duzu unitate didaktiko honekin?

b) Zer izan da gehien gustatu zaizuna edo zure arreta piztu duena?

c) Saiotakoren batean landutako zerbaitekin bereziki identifikatuta sentitu zara?

d) Zer aldatuko zenuke?

e) Ba al da gauzaren bat egitea gustatuko zitzazuna, baina unitatean egin ez dena?

- f) Saioen emaitzak desberdinak izan dira neskentzat eta mutilentzat, ala berdinak izan dira denentzat?
- g) Jatorrian, bidaian eta norakoan edo helmugan pertsonen gertatzen zaiena berdina al da gizonentzat eta emakumeentzat? Horretaz ohartuta al zeunden unitate didaktikoa egin aurretik?
- h) Unitate didaktikoa egin aurretik zenituen ideietakoren bat aldatu al duzu? Hala izan bada, zein?
- i) Migratzaile behartuen eta/edo iheslarien egoera hobetzeko zuk zeuk zerbait egin dezakezula ikusi duzu, ohartu zara?